

2. TXOSTENA

ABERRI OPAROA ERAIKITZEA ASKEAGO IZATEKO:

JUSTIZIA SOZIALA ETA HIRITARGOAREN ESKUBIDEEN BERMEA

AURKIBIDEA

1	HITZAURREA	4
2	TXOSTENAREN HELBURUAK	4
3	TESTUINGURUA, AURREKARIAK ETA EGUNGO DIAGNOSTIKOA	7
4	ALDERDIAREN ESTRATEGIAREN PRINTZPIO ETA OINARRI POLITIKOAK	14
5	NAZIO ASKEAGOA ETA OPARAGOAGOA ERAIKITZEN JARRAITZEKO ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK.	
	Justizia soziala eta eskubideen bermea herritarrentzat	15
5.1	<u>Hasierako irizpena.....</u>	15
5.2	<u>Euskal ekonomia. Klimaren erronka eta erronka digitala. Egungo enpresa ehuna eta erronka estrategiko berriak</u>	16
5.2.1	Energia. Trantsizio klimatikoa.....	16
5.2.2	Euskal industria teknologikoa.....	18
5.2.3	Egungo enpresa-ehuna finkatzea eta indartzea	21
5.2.4	Lehen sektorea eta nekazal eta elikagaien industria.....	24
5.2.5	Sormen- eta kultura-industriak Euskadi garatzeko faktore gisa.....	26
5.2.6	Automozio sektorea eta mugikortasuna.	27
5.2.7	Egungo sektore estrategikoak eta etorkizuneko sektoreak. Aeronautika eta sektore aeroespaziala. Bio-osasuna. Silver economy	28
5.2.8	Funtsezko azpiegiturak	28
5.2.9	Euskadiko sektore finantzarioa.....	30
5.2.10	Euskadiko ekonomia soziala	31
5.2.11	Aisia, kirola eta kalitatezko turismoa.....	32
5.3	<u>Trantsizio demografikoa eta soziala Euskadin</u>	32
5.3.1	Biztanleriaren zahartzea	32
5.3.2	Zaintza erdua	34
5.3.3	Jaiotza-tasa	35
5.3.4	Desparekotasun-egoerak. Emakume eta gizonen arteko parekotasuna	36
5.3.5	LGTBI+ aniztasuna.....	37
5.3.6	Osasuna	38
5.3.7	Migratzaileak	39
5.3.8	Etxebizitza	41
5.3.9	Derrigorrezko heziketa. Lanbide Heziketa. Unibertsitatea. Heziketa ez-formala.	44
5.3.10	Talentua. Fidelizatzea, erakartzea eta berreskuratzea.....	47
5.3.11	Funtsezko beste zerbitzuak	48
5.4	<u>Sektore publikoa. Administrazioa</u>	51
5.4.1	Funtzio publikoa	51

5.4.2	Aurrekontu politika. Defizitak eta neurri antiziklikoak.....	52
5.4.3	Fiskalitate-politika. Tributuak	52
5.4.4	Administrazioa sinplifikatzea (burokrazia). Administrazio eraginkorra, pertsonak erdigunean jarriko dituenak, digitala eta elkareragingarria	54
5.4.5	Erosketa Publiko berritzailea (EPB); bultzada emateko tresna	56
6	ONDORIOAK	57

1 HITZAURREA

Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista vascok, 1895. urtean sortu zenetik, lanketa handia egin du Herriaren alderdi sozio-politikoaren inguruan, hezkuntzaren alorrean, kulturean eta ekonomian.

Lan hori etengabea izan da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako, Foru Lurralde Historikoetako autogobernu-erakundeak berreskuratu zirenetik, eta Iparraldeko Elkargoa sortu zenetik, bai eta Euskadiko udalerri bakoitzean ere.

Alderdiaren Batzar Nagusiak izan dira betidanik gure alderdiaren estrategia eta printzipio orokorrak hausnartzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeko foroak.

Printzipio eta jardueren-ildo horiek defendatu eta gauzatu egin dira azken ia 50 urteotan egon garen erabaki- eta ordezkaritza-eremu bakoitzean, Autonomia Erkidegoetako egituraketa berriaren hastapenetan, ETaren terrorismoaren aurrean, krisi ekonomikoaren aurrean, Estatuek ezarritako zentralizazio- eta uniformetasun-egoeren aurrean, gizarte-gatazka uneetan edo munduko pandemiaren egoera berrienean; baina printzipio horiek izan dira gaur egun Euskadik, bere zazpi lurraldeetan, bere historian inoiz ezagutu ez duen gizarte- eta ekonomia-ongizateko egoera baten oinarri eta arrazoi nagusia.

Eta azpimarratu behar dugu, beste behin ere, herri-proiektu handi honek, oraindik amaitu gabe dagoenak, Alderdi honi zor diola demokrazian gaur egun duen eraikuntzaren zati handi bat, urte guzti hauetan izan diren alderdikide eta jarraitzaileei, emakume eta gizonei.

Pertsona horiei guztiei zor diegu gure aintzatespena, haiekiko zorrak eta betebeharrak lotzen gaitu, Herri hau eraikitzen jarraitzeko eta hurrengo belaunaldien esku onenetan uzteko.

Agiri honen helburua da aurrera egitea begirada etorkizunean jarrita, 1977ko Iruñeko lehen Batzar hartan eta ondorengoetan ezarritako printzipioekiko koherentziatik abiatuta, denetan funtsezko ideia gisa ezartzen baitzen gure Herrian justizia soziala eta berdintasuna finkatu beharra. Txostenaren paragrafo bat berariaz ekarri nahi dugu orain: "Eusko Alderdi Jeltzaleak uste du demokrazia politikoa eta demokrazia ekonomikoa elkarrengandik banatu ezin diren kontzeptuak direla, eta uste du bi ideia horiek aldi berean aplikatzea ezinbestekoa dela gizarte zuzen eta demokratikoa izateko".

Ondoren, 1987an Zestoan, 1992an eta 1995ean Bilbon (Arriaga), 1992 eta 1995; 2000an, 2004an eta 2007an Bilbon (Euskalduna); eta 2021ean Barakaldon onetsi ziren txostenek koherentzia horri berari eutsi zioten Alderdiaren eta Herriaren alderdi sozial eta ekonomikoak aztertzeke orduan. Jarrera politiko horrek gaurkotasun osoa du oraindik, eta guztiz lerrokatuta dago Gizarte Ekonomia sustatzeko Europako planarekin

2 TXOSTENAREN HELBURUAK

Txosten honen helburua da, EAJ-PNV gisa, zerbitzu publikoen eta ekintza sozioekonomikoaren eremuan hainbat printzipio eta ekintza estrategiko zehaztea, gure herriaren asmo eta premiekin bat datorren Ongizatearen Gizarte bermatzeko, Europako gizarte aurreratuenen pare egoteko, orainean eta etorkizun hurbilean, Euskadiko pertsona guztientzat, zazpi euskal lurraldeak barne hartuz.

Ongizatearen Gizartea honela definitzen dugu: pertsona librean gizarte antolatua, non herritar guztiek, beren ahalegin kolektiboaren ondorioz, ongizatea bermatuta izango duten, aukera-berdintasunean oinarrituta, funtsezko eta ukaezinezko zerbitzuak arduraz jasotzeko eta erabiltzeko eskubide iraunkorra ziurtatuko duten politika publikoen bitartez, eta ekitate-, segurtasun-, justizia- eta kohesio-maila eraginkortasunez bermatuko diren, gizarte aurreratuenen pareko izateko.

Euskal gizartearen ustez, zalantzarik gabe, autogobernu-maila handiagoak ekarri ditu, Alderdia egon den gobernuen lanari esker, ongizate handiagoa eta gizartearentzako zerbitzu publiko hobeak. Garapen ekonomikoa eta garapen soziala uztartzen jakin dugu. Garapenerako euskal ereduak, arlo akademikoan "euskal kasua" izenarekin ezagutzen denak, justizia sozialaren eta humanismoaren balioetan oinarritutako ongizatearen gizartera garamatza.

Agiri honen xedea da identifikatzea nazio oparoagoa eraikitzen jarraitzeko lana baldintzatuko dituzten elementu kritikoak, askeagoak izan gaitezen, ongizate-estatu handiagoa lor dezagun; jasangarritasunaren bidetik aurrera eginez eta, azken batean, Alderdiak, erakundeek, eragile sozial, ekonomiko eta kulturelek eta herritar guztiek lehenetsi beharko genituzkeen printzipio eta jardueraildo estrategikoak proposa ditzagun.

Euskal gizarteak erakutsi du egokitze gaitasuna duela, eta jakin du, krisiak gorabehera, jarduera zabala sortzen gure ekonomia-sarean. Jarduera handiago horrek, zerga-gaitasunarekin eta diru-bilketarekin batera, baliabideen zuzkidura gero eta handiagoa ekarri du kalitatezko zerbitzu publiko batzuetara bideratzeko (osasuna, hezkuntza, segurtasuna, azpiegiturak, ekipamendu aurreratuak...) eta beste berri batzuk ezartzeko. Horrek guztiak aukera gehiago eman dizkie gure herritarrei beren garapen pertsonal eta profesionalerako.

Txosten honen helburu nagusietako bat da adieraztea euskal nazioak ez duela benetako erabaki-askatasunik izango, salbu eta, gure identitatea eta komunitate-balioak zainduz, ongizate-estatu eta egungo eta etorkizuneko bizitza-estandarrei eusteko eta hobetzeko beharrezko baliabideak bermatuta baditu; horiek izan beharko dute, gutxienez, Europako gizarte aurreratuenetakoen pareko.

Horretarako, ezinbestekoa da, halaber, sistema ekonomiko sendoa izatea, iraunkorra eta denboran erresilientea, gure gizarte osoa finkatzeko, beharrezko zerbitzu eta ondasun publikoetako inbertsioak egiteko. Horrek esan nahi du sektore pribatu sendoa, iraunkorra eta erresilientea izan behar dugula.

Ongizaterik ez dago kalitatezko ondasun edo zerbitzu publikorik gabe, eta baliabide publikorik ere ez da egongo ekonomiarik gabe, horiek sostengatuko dituen sektore pribatu iraunkorrik gabe: gastua diru-sarrerari lotuta dago ezinbestean.

EAEren eta Nafarroaren kasuan, Ekonomia Hitzarmenaren eta Ekonomia Itunaren sistemek gizarte benetan eraginkorra eta iraunkorra izatera behartzen gaituzte. Baliabide publikoak geure ekonomiatik sortzen dira. Euskadiko ehun ekonomikoa suntsituko balitz arriskuan jarriko litzateke gure ongizate-ereduaren finantzaketa. Inork, ezein estatuk ez ditu sortutako galerak edo defizitak kitatuko, gure autogobernuaren eta zerga- eta finantza-independentziaren kontura ez bada. Bai Hitzarmena eta Ituna dira Hego Euskadiko lurraldeen zerga-autonomiaren erakusgarri handiena, eta EAJ-PNVren betebeharra izan behar da zerga-autonomia hori erabiltzea gure lurraldeak ekonomikoki gai eta alderdi

fiskaletik eraginkorrak izan daitezen laguntzeko, Europako sozietate aurreratuenen pareko ondasun eta zerbitzu publikoak finantzatzeko beharrezkoak diren baliabideak lortzeko eta, aldi berean, enpresen inbertsio pribaturako nahiz pertsona fisikoak erakartzeko eta atxikitzeko zerga-baldintza erakargarriak definitzeko.

Ipar Euskadiren kasuan, baliabide gehiago bermatzeko moduak bi bide jarrai ditzake: Europatik baliabideak lortzea Euroeskualdearen garapenaren bidez edo Frantziako Estatuari autonomia fiskalerako bide berriak eskatzea proiektu eta programa espezifiko garrantzitsuak garatzeko.

Egoera horrek Alderdia behartzen du, bai gobernatzen duen erakundeetan, bai oposizio-eremuetan, posizio arduratsu eta proaktiboa erakustera, herrialdeko ehun ekonomikoari laguntzeko orduan; enpresa handiek, ertainek, txikiek eta mikroenpresek osatzen duten ekonomia horri eustera, eta, besteren konturako langileez gain, beren dedikazioarekin eta konpromisoarekin, enpresaburuek, autonomoek eta kooperatibistek egunero egiten duten funtsezko lana aitortzera, beren ondare propioa arriskuan jartzen baitute, gure nazioaren zerbitzu publikoak elikatzen dituzten enplegua eta jarduera sortzen duten enpresei eta jarduerari eutsi ahal izateko.

Txosten honen helburua da, halaber, egungo eta datozen urteetako ekonomian funtsezkoak diren zenbait elementuren garrantzia azpimarratzea, bai eta beste eredu teoriko eta ez oso errealista batzuekiko kontrastea egitea ere, non zerbitzu publikoetako gastuaren hazkunde esponenzialen alde egiten den, horiei aurre egin ahal izateko baliabideen bermerik gabe.

Aurreko paragrafoetan hitz egin dugu egungo eta etorkizuneko ongizatea hobetzeaz. Zentzu identitario sakonarekin egin nahi dugu, euskal herritar sentitzearen harrotasuna erakutsiz, eraldaketa globaletara moldatzen dakien Alderdi bateko kide baikara. Gure abiapuntua da mundura irekia den abertzaletasun globala, solidarioak gara gehien behar duten kolektiboekin, gure askatasun printzipioei eta euskal abertzaletasunari uko egin gabe.

Indibidualismoa areagotzen ari denez, komunitatearen garrantzia aldarrikatu behar dugu gure ekintza politikoaren oinarri gisa, gizarte-kohesioa eta oparotasun inklusiboa bultzatzeko helburuarekin, hau da, jarduera ekonomiko eta sozialaren sustapen gisa ulertuta, eskubideen eta betebeharren arteko orekan oinarrituta, zeinak bizitza-proiektu indibidualen garapena bateragarri egingo baitu gizarte desparekotasunak ahalik eta txikienak izatearekin.

Horregatik, euskal gizarteak gizarte bidezkoagoa, berdinzaleagoa eta inklusiboagoa izan nahi du, eta, horretarako, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen arteko benetako parekidetasuna lortzea, eta era guztietako gorrotoen edo diskriminazioen aurka borrokatzea, honako arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza edo etnia, sexua, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo -identitatea, genero-adierazpena, osasun-egoera, egoera serologikoa edo patologiak eta nahasmenduak jasateko joera genetikoak, hizkuntza, egoera sozioekonomikoa, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial. Horretarako, parekotasunaren, inklusioaren eta pertsona guztiekiko errespetuaren balioak sustatu behar dira, besteak beste, diskriminazio positiboko ekintza orekatu eta eraginkorrak garatuz.

Belaunaldien arteko elkartasuna da ponentzia honetan jorratu beharreko beste printzipioetako bat. Estaldura publikoa, zerbitzuak eta prestazioak kolektibo guztietara iritsi behar dira.

Aurrera egin behar dugu kulturartekotasunean, hau da, kulturen arteko elkarrekintzan, gizarte anitza eta askotarikoa eraikitzeke elementu egituratzaile gisa, eskubide eta askatasun indibidual zein kolektiboaren errespetua sustatzen duen bizikidetzaren alde egiten duena. Errealitate horrek aukera ematen digu Herri gisa beste kultura horiekin batera gure hizkuntza eta nortasun-ezaugarriak erakusteko eta gordetzeko, hori guztia etorkizuneko Euskadira proiektatuta.

Gure alderdiak defendatzen eta eraikitzen duen gizarte-politiken eredua desberdina da beste erakunde politiko batzuek defendatzen dituzten beste eredu batzuen aldean; zaintza-eredu unibertsala da, pertsonaren bizi-ziklo osoan zaintza integralak ematen dituen, erantzukizun eta lidergo publikoko eredua, pertsonalizatua, komunitarioa, lankidetzaren publiko-pribatu-soziala sustatzen duena, arreta etxean lehenestea bilatzen duena instituzionalizazioaren aurretik, eta berrikuntza eta politika publikoen ebaluazioa bultzatzen dituen.

Testuinguru horretan, funtsezko zerbitzuak, besteak beste, hezkuntza, osasuna, segurtasuna, etxebizitzaren eskuragarritasuna eta funtsezko azpiegiturak aztertu eta eztabaidatu nahi ditu txosten honek.

Alderdiak, aberrigintzarako funtsezko eragile den aldetik, zehazten diren estrategiak eta ekintzak betetzeari dagokionez etengabeko ebaluaziorako mekanismoak ere izan behar ditu. Ondo neurtutako eta kudeatutako mekanismo horiek dira herritarren artean konfiantza-maila handiagoak sortzen laguntzen dutenak eta txostenean termometro iraunkor izan beharko luketenak.

Ebaluazioa egiteko eskakizun bera planteatzen diegu eragile sozial eta ekonomikoei, baita administrazioari ere, bere estrategiak eta ekintzak diseinatu, abiarazi eta gauzatzeari dagokionez.

3 TESTUINGURUA, AURREKARIAK ETA EGUNGO DIAGNOSTIKOA

Aurreko ataletan adierazi bezala, Alderdiak bere sorreratik ulertu du sustapen ekonomikoa eta gizarte-politika binomio banaezina direla. Politika soziala eta birbanatzailea inplizituki dago aberastasuna sortzen den unetik, hezkuntzara, osasunera eta lanera iristeko aukera-berdintasuna sustatuz, enpresetan errentak ekitatez banatuz, pertsonentzako garapen profesionala bultzatuz, kalitatezko enplegua sortuz eta diru-sarrerak bermatzeko sistema sendo bat sortuz.

Gurea bezalako gizarte aurreratuetan eskubideak exijitzeko joera dugu, eta ez hainbeste izaera solidarioko aurrerapen kolektiboak bilatzekoa. Errealitatea da dinamika berri honi aurre egiten dioten erantzun asko indibidualismoa, populismoa eta ikuspegi kolektiborik eza sustatzen ari direla, gure printzipio gidariekiko jarrera guztiz antagonikoak. Hori dela eta, eskubideen aitortzan aurrera egiteaz gain, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa ere sustatu behar da, betebeharrak betetzeari eta gizarte hobetzeari dagokionez.

Acemoglu, Johnson eta Robinson irakasleek (2024ko Ekonomiako Nobel saria) edo Esther Duflo irakasleak (2019ko Ekonomiako Nobel saria) adierazi dutenez, nazioen oparotasuna erakundeen kalitatetik ere dator (inklusibotasuna eta demokrazia), ahalik eta desparekotasunik txikiena sustatuz.

Beste irakasle eta ekonomialari askok, Mariana Mazzucato, Paul Krugman, Thomas Piketty edo Joseph Stiglitz kasu, lehiakortasun handiagoa lotzen dute are gizarte-kohesio handiagoarekin. Euskadin, lehiakortasun-garapen orok berarekin ekarri behar du gizarte-desberdintasunak murriztea, aberastasuna sortzeko eta banatzeko mekanismoak abiaraziz, hala nola enpleguan eta prestakuntzan sartzeko mekanismoak, gure alderdiaren DNAn sorreratik aldatu ez den zerbait.

Gaur egun, zenbait datuk bermatzen dute Euskadin ildo horretatik ari garela: interes orokorra partikularren gainetik jarritz. Besteak beste, Nazio Batuen Giza Garapenaren Indizea, Gini indizea (desberdintasun-maila neurtzen duena), batez besteko soldata-maila (EBko batez bestekoa baino handiagoa), bazterketa-arriskuan dauden pertsonen kopuru txikiagoa, eskolatze-maila, pertsonentzako arreta eta zaintza, edo kalitate- eta ongizate-enplegua sortzen duen industria-jarduerak duen indarra bezalako ratioek erakusten dute orain arte eginiko bidea zuzena izan dela. Baina bide honetan asko egitea geratzen zaigu oraindik.

Hala ere, mundua gero eta erritmo azkarragoan aldatzen ari da, eta horrek esan nahi du gaur egun dugun ongizate-maila lortzeko erabili ziren errezeta askok eraginkortasuna eta indarra galdu dutela. Premia aldakorrei erantzuna eman beharrak etengabeko presioa jasaten duten gure gizarte-politiken etengabeko berrikuspena ekarri behar du.

Gure Herriak erronka garrantzitsuak ditu aurrez aurre, datozen urteetako etorkizun soziopolitikoa baldintzatuko dutenak.

Populismoaren eta munduko posizio totalitarioen azken aldiko gorakada, gizarte-komunikazioko tresnak txarrerako erabili izanarekin, hedonismoarekin eta kontsumoa ongizate erreferentzia gisa erabiltzearekin eta kolektibitatearen aurrean indibidualismoa jartzearekin areagotu egin delarik, eta emaitzak bilatzeko berehalakotasuna dira gure Alderdiak betidanik defendatu izan duen eta une honetan are ahalegin handiagoarekin defendatu beharko duen komunitate-balioari eragiten dioten gaitzetako batzuk. Gero eta handiagoa den gizarte-erronketako bat segurtasunik eza eragiten duten portaerak areagotzearekin lotuta dago, hala nola oinarritzko bizikidetzara-arauek urratzearekin, agintaritzaren aurka gauzatutakoekin eta gizartean eragin handia duten delituak areagotzearekin. Fenomeno horri eraginkortasunez heldu behar zaio, gizarte-balioetan hezte eta gizarte-kohesioa indartzea sustatzen duten prebentzio-estrategien bidez. Era berean, funtsezkoa izango da, oinarritzko eskubideak errespetatzeko lege-esparruaren barruan, segurtasun publikoko kidegoen operatibitatea indartzea, eskubide eta askatasunen babesa bermatzeko, eta, horrela, euskal herritar guztientzako ingurune segurua eta bidezkoa ziurtatuz.

Ahaleginaren, ekintzailatzaren eta erantzukizun indibidual eta kolektiboaren kultura erdigunean jarri behar da, belaunaldien arteko konpromisoarekin batera, hori izan baita gure gizartearen ezaugarri nagusia.

Gaur egungo joera nagusia da eskubideak exijitzea eta ez horrenbeste elkartasunezko eta gizarte-justiziako aurrerapen kolektiboak bilatzea. Lankidetzaren eta elkarlanaren ikuspegitik baino, konfrontazioaren ikuspegitik egiten dugu bide hori. Gure gizartea eraiki behar da eskubide eta betebeharrak uztarturik eta ikuspegi komunitario batetik egungo erronka sozialei aurre egiteko giza garapenezko ekosistemak sortuz.

Gizarte-desperekotasunaren aurkako borrokan eta gizarte bidezkoago baterantz aurrera egiteko ahaleginean, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna gainditu gabeko ikasgaia da oraindik, eta berdintasun politiketan ezinbestekoa da zeharkakotasuna. Hezkuntza eta sentsibilizazioa funtsezko tresnak dira emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra nagusi izango den herrialde bat lortzeko.

Era berean, lehen mailako erronka da egiturazko genero-indarkeria (matxista, LGTBifobikoa...) desagerraraztea. Ikuspegi feministak eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasunak funtsezko zeregina dute ikuspegi horri heltzeko eta hura lortzeko orduan.

Biztanleria migratzailea integratzea eta gizarteratzea ere bada komunitateak egin beharreko zerbait: pertsona hauei eman behar zaizkio, sistema publikotik zein erkidego-eremutik, beren bizi-proiektua garatu ahal izateko behar dituzten laguntzak.

Gainera, euskal gizarteak urteak daramatza zahartze-prozesu batean. Etorkizunera begira areagotu egingo da, aurreikuspen guztien arabera, jaiotza-tasa baxuen eta bizi-itxaropen handiagoaren ondorioz. Epe laburrean, migratzaileen etorrerak eta horiek gizartean integratzeak baino ez du ekarriko euskal gizartean biztanleria ez murriztea. Epe ertain eta luzera, biztanleria handituko da, migratzaile berriak etortzen badira eta jaiotze tasa iraunkortasunez errekuaratzea lortzen bada.

Bizi-itxaropenaren igoerak eta biztanleriaren zahartzeak, familia-eredu berrien ugaritzeak eta zaintzen eremuan lan egiteko behar diren pertsonen kopuruaren pixkanakako hazkundeak, gero eta profesional gutxiago izatearekin batera, eragin dute Euskadin arreta eta zaintza ereduaren eraldaketa sakona bultzatzea.

Aldaketa demografiko horiek eragina dute, halaber, osasun-sisteman, etorkizuneko pentsioen kudeaketan eta erakunde publikoek pentsio publiko horiek osatzen lagunduko duten aurrezpen-mekanismoak bultzatzeko premian. Izan ere, horien iraunkortasuna defendatzen jarraitu behar dugu.

Lehenetsi beharreko helburuetako bat da euskal gazteek beren bizi-proiektua Euskadin egin ahal izan dezatela. Horretarako, eta prestakuntza akademikoaren eta lanbide-esperientziaren esparruan atzerrira joan ahal izateak dakartzan onuren gainetik, beharrezkoa da aukerak sortzea, enplegu duina eta ondo ordaindua sustatzea, bai eta etxebizitza eskuratzeko aukerak ere; ahal den neurrian, bertoko talentua berton geratzea lortzeko.

Badira, lana izan arren, bizi proiektu oso bat garatzeko behar den ahalmen ekonomikorik ez duten pertsonak, etxebizitza eskuratzeko gero eta garestiago dagoelako.

Gorabehera hori jasota dago Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak 2024ko ekitaldian EAEri buruz egindako txostenean; izan ere, lehen etxebizitza eskuratu ezin duten 18 eta 44 urte bitarteko

pertsonen % 73,7k diru-sarrera edo errenta propioak ditu, % 45,3k unibertsitate-prestakuntza du eta % 51,8k lanpostu finkoa du.

Biztanleriaren ongizateari buruzko pertzepzio orokorrari dagokionez, txosten berak bizitzarekiko gogobetetze-indizea nabarmentzen du, eta EAEn zertxobait jaitsi da 2023an, pandemia aurreko garaiko mailetara itzuliz.

Adierazle horiek ez dira oso desberdinak Nafarroan eta Iparraldean.

Lurralde orekari dagokionez, alde nabarmena dago hiriburuen eta hauen inguruko herrien artean, bai eta herri turistikoagoen artean ere, gehienak kostaldean, non hiriguneek berezko dituzten etxebizitza-arazoak eta gentrifikazio-arazoak egiaztatzen diren; eta barnealdeko kokapen geografiko batzuen artean, jarduera ekonomiko txikiagoarekin eta dentsitate txikiagoarekin, fenomeno hori nabarmenagoa baita Iparraldean eta Nafarroan.

Desberdintasun edo desoreka horiek ere aztertu behar dira lurraldeen arteko aukera-berdintasuna eta oreka iraunkorra bilatzeko.

Egoera horretan, euskal enpresek gero eta zailtasun handiagoak dituzte behar duten talentua erakartzeko eta fidelizatzeko, etxebizitza eskuratzeko zailtasunen ondorioz, hein batean.

Euskadiren beste ezaugarri bat da enpresa gehienak ETEak direla (enpresen %98 inguru, eta horietatik %82 enpresa txikiak dira). Eta batzuetan tamaina txikiak malguak izateko eta aldaketetara azkar egokitzeo aukera ematen badigu ere, oro har ahultasuna da, eta, beraz, tamaina handitzeko edo bestelako jarduerak (aliantzak, nitxoetan espezializatzea...) erabakiak hartu behar ditugu agertoki global berrian lehiakorrak izaten jarraitu ahal izateko.

Gainera, berrikuntza ETEetan sartzea, produktuetan zein prozesuetan, oro har, murrizta da, eta eragin zuzena du lehiakortasunaren galeran.

Halaber, beharrezkoa da ETEetan berrikuntza ez-teknologikoaz hitz egitea lehiakortasunaren palanka gisa. ETEek estrategia eta kudeaketa-eredu onak izan behar dituzte pertsonen, antolaketaren edo marketinaren eremuan.

Euskadi, EAE zein Nafarroa, bikaintasun polotzat eta erregio berritzaile indartsutzat hartzen ditu "Regional Innovation Scoreboard" adierazleak (Europako Batzordea, 2023); hala ere, ETEei dagokienez, behin eta berriz, desabantaila egoeran gaude Europako batz bestekoarekin alderatuta.

Gure enpresen tamaina eta espezializazioa ez dira erronka bakarra. Enpresek balio-katean duten posizioa ere bada erronka bat. Sektore askotan, gure enpresek ez dute produktu amaitu bat eskaintzen: osagaien hornitzaileak gara, eta horrek kate horretan beherago kokatzen gaitu. Egoera horietan gertatu ohi da enpresen negoziazio-gaitasunak eta estrategiak murriztu egiten direla.

Testuinguru makro batean, Europa posizioak galtzen ari da lehiakortasunari dagokionez Estatu Batuekin eta Txinarekin. Draghi txostenak adierazten duen bezala, EBren hazkunde ekonomikoa Estatu Batuen bano motelagoa izan da azken bi hamarkadetan, eta Txinak, berriz, nabarmen egin du

aurrera. EBren eta Estatu Batuen arteko arrakala, 2015eko prezioen arabera BPGaren arabera, pixkanaka handitu da: 2002ko % 15etik 2023ko %30era. Europa ez da gai izaten ari bere erritmoari jarraitzeko berrikuntzan inbertitzeari dagokionez. Ezinbestekoa da Europa produktibitatean haztea, hazkunde-tasa jasangarriei eutsi ahal izateko.

Amerikako Estatu Batuak indartzearen arrazoia da, neurri handi batean, trantsizio digitala deritzona bultzatzen ari diren sektore teknologiko aurreratuetan duen lidergoa. Horien artean daude, besteak beste, Adimen Artifiziala — AA Generatiboa eta AA Orokorrerako proiektioak azpimarratuz —, robotika aurreratua, datuen kudeaketa eta analisisia (Big Data), zibersegurtasuna, hodeiko konputazioa (Cloud Computing), konputazio perimetrala (Edge Computing) eta Gauzen Internet (IoT). Era berean, sortzen ari diren teknologiak, hala nola konputazio kuantikoa, garrantzi handia hartzen hasi dira. Europak nazioarteko rankinetan duen presentzia mugatuak — munduko "top 50" konpainia teknologikoetatik lau baino ez dira europarrak — eremu horretan dagoen arrakala nabarmentzen du. Europako merkatuaren zatiketa eta erregulazio handiagoak horretan laguntzen du, besteak beste.

Europak behar-beharrezko du atzean ez geratzea trakzio-konpainia teknologiko handien garapenean, hala nola zerbitzu aurreratuko enpresen garapenean.

Eta Euskadin, Europako eremu horren barruan, bereziki lan egin behar dugu garapen teknologikoan. Gaur egun, 10 langile baino gehiagoko euskal enpresen %25ek baino gutxiagok txertatu ditu teknologia berri horiek beren produkzioan. Gure ehun ekonomiko osoaren adimen artifiziala eta digitalizazio aurreratua masiboki bultzatzea posible da, baita sektore publikoan ere. Bultzada horren bidez, sektore digitala bera ere indartuko da, gure enpresa teknologikoen ezagutza eta tamaina handituz eta inbertsio berriak erakarriz. Adimen Artifiziala sektore publikoan ezartzeak produktibitatea izugarri handitzea ahalbidetuko du, eraginkortasun operatiboa optimizatuz eta funtsezko izapide eta zerbitzuen kudeaketan denbora murriztuz. Hobekuntza horiekin, gaur egun administrazio-zereginetan inbertitzen diren ahaleginak eta baliabideak beste arlo estrategiko batzuetara bideratu ahal izango ditugu, hala nola berrikuntzara, erakunde- eta lurralde-mailen arteko jardunbide egokiak elkarren artean trukatzera, jasangarritasunera eta gizarte-garapenera. Eraldaketa horrek zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeaz gain, gure erakundeek egungo eta etorkizuneko erronken aurrean erantzuteko duten gaitasuna indartuko du, eta Euskadi finkatuko du kudeaketa publikoaren eraginkortasunaren eta modernizazioaren erreferente gisa.

Txinari dagokionez, esparru digitalean Europa gainditzeaz gain, trantsizio ekologikoari lotutako funtsezko industria-sektoreetan ere ari da. Energiaren edo mugikortasunaren alorreko funtsezko segmentuen balio-katean duen nagusitasunak, nabarmenenak aipatzearen, auzitan jartzen du Europako ekonomiaren zutabe nagusietako bat, euskal ekonomian ere funtsezko oinarri den zerbait. Txinatarren abantaila hori, hein batean, beren merkatuan jarduteko baldintza gisa mendealdeko enpresei transferentzia teknologikoa duten Joint Venture delakoak exijitzeko politikari zor zaio; horrez gain transferitutako teknologia hobetzeko gaitasun egiaztatua dute.

Pandemiak agerian utzi du kate logistikoaren hauskortasuna, eta bizirauteko behar ditugun oinarritzko eta ezinbesteko baliabideek kanpoko merkatuekiko menpekotasun handia dutela erakutsi digu. Hori dela eta, beharrezkoa da baliabide horiek aztertzea, hornikuntza estrategikoko politika bat egitea

edota Euskadin oinarria duten gutxieneko ekoizpen-unitateak sortzea, sektore pribatuarekin elkarlanean edo horiek gabe. Ezinbestekoa da jakitea baliabide horiek nola produzitu, jakinduria gorde eta premiazko eta ezinbesteko kasuetan gehiago sortzeko gai izatea.

Gure automobil-industria egokitzapen-prozesu betean dago une honetan, baita industria eolikoaren kate osoa ere. Aldi berean, energia-eraginkortasuna eta ekonomia zirkularra sustatzen ari gara, eta, besteak beste, biltegiatze energetikoan, hidrogeno berdean eta beste erregai berriztagarri batzuetan aurrera egiten saiatzen ari gara.

Industria aeronautikoa eta aeroespaziala bezalako esparruak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira Herrialde osoan, eta sektore farmazeutikoa eta bio osasuna ere nabarmendu behar dira.

Lehen sektoreak eta nekazaritzako elikagaien industriak lurraldeari lotutako laguntza-puntu sendoa eskaintzen dute. Hala ere, lehen sektoreko ustategien titularren batez besteko adina igotzen ari da pixkanaka, eta zailtasunak daude ustategien zuzendaritzetan ondorengotza-prozesu bat bermatzeko.

Sektore honetan funtsezkoa da, Euskadiko hiru administrazio-eremuen artean eta Europako esparruaren barruan, batera jardutea. Ondorengo helburuak ditu horrek: lurraldearen elikadura-autonomia handitzea, irtenbide berritzaileen bilaketa sustatzea, baita belaunaldien arteko erreleboetan ere, eta Europa eta mundu mailako hornidura-murrizketen edo tentsio espekulatiboen aurrean estrategia komunak zehaztea.

Aldi berean, turismo-sektorea, oro har, intentsitate handikoa ez bada ere eta BPGaren ehuneko orekatua ematen badu ere, monitorizatu eta arautu egin behar da, gure lurraldeko eremu oso zehatzetan, Europako beste hiri batzuek duela urte batzuk beren hiritarrengan nabaritu dituzten eragin negatibo nabarmenak saihesteko. Aldi berean, kalitatezko turismo-filosofia batetik sustatu beharreko jardura da, saturazio-mailetara iristetik urrun dauden eskualde potentzialetan.

Merkataritza-sektoreak ere aldaketa handiak izan ditu kate handien eta online salmenten agerpenarekin. Saltoki txikiak ere babestu eta monitorizatu behar dira, ondorengotza-arazoei, titularren zahartzeak eta establezimendu-kostu altuei eragiten baitiote. Merkataritza erdiko klasearen zutabeetako bat da, eta forma ematen dio gure hirien idiosinkrazia bereziari.

Klima-aldaketaren aurkako borrokan aurrera egitea, natura kontserbatzeko eta biziberritzeko neurriak bultzatuz eta horri lotutako jardura ekonomikoen lehiakortasuna eta eraginkortasuna bultzatuz, eredu zirkular eta birsortzaileko ekonomiara jo behar da.

Gainera, hainbat hamarkadatan lehen aldiz, testuinguru geopolitikoa nabarmen aldatzen ari da. Gaur egun, Trumpen Gobernuaren kanpo-politika ez dugu ezagutzen, baina AEBko ekonomiaren protekzionismoa areagotzea dakar eta ohiko aliatuei gastu militarra handitzea eskatzea.

Txina AEBren lidergo globala lekuz aldatzeko gaitasuna duen eragile gisa agertu denez, bloke-politika baterantz goaz. Europari dagokionez, hornidura kritikoetan hirugarren estatuetikiko mendekotasuna murriztu beharko da, eta, aldi berean, segurtasun-gaietan erantzukizun handiagoak hartu beharko dira. Errusiak Ukraina inbaditu izana panorama berri honen adibide bat da. Mehatxuak eta aukerak planteatzen dituen agertokia da. Erregai fosilak gure azken energia-kontsumoaren ehuneko oso handia

dira oraindik ere (Nafarroan, %70 inguru; EAEn, %83,1; eta Iparraldean, %60). Energia berriztagarria sortzeko gaitasuna, Nafarroan izan ezik, txikia da, eta biltegitratze egonkorreko eta energia transmititu eta banatzeko azpiegitura esanguratsuak falta dira.

Era berean jakin behar dugu, gurea bezalako gizarte aurreratu batean agertzen diren kontraesanak konpontzen, jakitun baita ildo horretan urratsak emateko beharraz; aldi berean, babes handiagoa edo txikiagoa duten herritarren mugimenduekin, "bai, baina ez nire lorategian" klasikoa aldarrikatzen du.

Epe laburrean, uraren hornidurari eta saneamenduari dagokienez, dauden azpiegiturekin eta programatutakoekin, ez da gabezia handirik ikusten, nahiz eta gure Herriko hainbat eremu geografikotan beharrezko neurriak hartu behar ditugun biztanle guztiei uraren erabilgarritasuna bermatzeko, beharrezko kalitate-eskakizunei erantzunez, baita herrialdeko administrazio-erakundeen arteko estrategia komunak ahalbidetuz ere. Era berean, beharrezkoa da gure ibai-sistema eta ibaiak babesten eta kontserbatzen jarraitzea, uholde-arriskuaren aurrean erresilienteagoak izan daitezen, uholde-arriskua eta biztanleriari eta gure lurraldeari eragiten dion eragina murriztuz.

Azkenik, gure aktibo nagusienetakoa euskal gizartea bera da. Orain arte egindako bidea baloratzen duen gizartea da, eta guztion ahaleginarekin eta konpromisoarekin, ongizateari dagokionez, gizartearen puntako eredu bat eraikitzeke gai izango garela dago.

Eta ongizate-gizarte orotan funtsezko elementuetako bat da prestakuntza- eta hezkuntza-estandar altuak izatea. Derrigorrezko hezkuntza, goi-mailako hezkuntza, unibertsitatekoa zein lanbide-heziketako, eta lanbide-prestakuntzako programak funtsezkoak dira Euskadin, eta bikaintasunean inbertitzen jarraitu behar dugu. Ildo horretan, funtsezkoa da kalitatezko hezkuntzan inbertitzea eskolatzearen lehen urteetatik, ikasleak motibatuz eta irakasleak inplikaturik talentua txikitatik aurkitu eta sustatu ahal izateko.

Euskal gizarteak ondo daki azken hamarkadetan sortu duen ongizate-eredua, konpromisoaren eta elkarlanaren emaitza, diru-sarrera publikoen bidez finantzatzeko dela, eta horien barruan zergek funtsezko garrantzia dutela.

Zerga-bilketa, funtsean, ekonomiaren bilakaeraren arabera izango da. Historiak erakusten digu ekonomiak zikloak dituela eta Euskadikoa moduko ekonomia txiki eta ireki batentzat zail gertatzen da horretatik ihes egitea. Diru-sarrera publiko handiagoak gastu eta inbertsio handiagoak ekar baditzake ere, batzuetan ez dira elkarren pareko izaten. Zerga-bilketa txikiagoa izateak ez du esan nahi zerbitzu publikoak finantzatzeko premia txikiagoa txikia izango denik. Orain arte, euskal erakundeek errealitate aldakor hori kudeatzen jakin dute. Funtsezkoa izango da berritzailea izatea, baina, aldi berean, errealista, zuzena eta ekitatiboa ere, gehiegizko zerga-tasen planteamendu maximalistetara edo herrialdeari erakargarritasuna kentzen dioten eta deslokalizazioak sustatzen dituzten muturreko zorpetzetara jo gabe. Ildo horretan, ezin dugu espero herritarrek zerga-politika bat edo beste onartzea besterik gabe, hau da, pedagogia lan handirik egin gabe.

Etorkizunari begira, Next Generation funtsetarako aldia amaituta eta aurrekontuen egonkortasunerako mugak malgutzeko epea amaituta, Europan piztu den eztabaida da Europan

egoera global berri honetan lehiakortasuna bermatzeko egin beharreko jarduerak nola finantzatu beharko diren, gure ongizate eredu bereiziari eusteko. Eztabaida horrek Euskadiri ere eragingo dio.

4 ALDERDIAREN ESTRATEGIAREN PRINTZPIO ETAK OINARRI POLITIKOAK

Familia, bere eredu guztietan, babestu beharreko eta bultzatu beharreko ondasun soziala da.

Labur-labur adierazten dira proposatzen den txosten honek oinarri dituen printzipioak, helburuak eta ekintzak aztertzeko eta ezartzeko orduan gidari izan ditugunak. Printzipio horiek oinarritzen dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (Baiones René Cassinek 1948an idatzitakoak), 2030 Agendaren garapen iraunkorreko helburuetan eta gure ideologia abertzalean:

- Erkidegoa da erronka ekonomiko eta sozial berriei erantzuteko esparrua, indibidualismoari eta populismoei aurre eginez eta herri gisa ezaugarritu gaituzten balio sozialetan oinarrituz
- Euskara, gure hizkuntza, gure kultura eta nortasun ezaugarriak zaintzea eta harrotasunez aldarrikatzea, eta, aldi berean, harrera lurraldea izatea, aniztasunera irekia, guztion Euskadi sortzeko.
- Etengabeko lana EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean era guztietako eta maila guztietako loturak lantzeko.
- Ikuskera guztiz interbentzionisten aurrean, pertsonak bere garapen indibiduala, askatasunez eta arduraz gauzatzea proposatzen dugu, bere ongizate pertsonala sustatzeko eta gizarte osoaren bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko, hurkoarekiko tolerantzia eta errespeturik handienarekin. Aitortzen dugu euskal herritarrak, beren prestakuntza eta heldutasunari esker, gai direla beren bizitzetan eragin zuzena duten erabakiak hartzeko, erakundeek erabaki beharrik izan gabe. Ikuspegi hori autonomia pertsonalarekiko erabateko errespetuan, tolerantzia handiengan eta besteekiko errespetuan oinarritzen da, horrela bizikidetzaren harmoniatsua eta ongizate partekatua bermatuz gizarte osoan.
- Ahaleginaren, erantzukizunaren eta konpromisoaren kultura gure arbasoengandik jaso dugun balioa da, eta orainean eta etorkizuneko belaunaldientzat aldarrikatu eta sustatu behar dugu.
- Desberdintasunen aurkako borroka, justizia ekonomikoa eta soziala eta belaunaldien arteko elkartasuna dira gure erabakiak esparru sozial eta instituzional guztietan gidatu behar dituzten balioak.
- Emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna, ikuspegi feminista eta genero-ikuspegia zabalduz, eskura ditugun bitarteko guztiak erabiliz (legeria, prebentzio- eta babes-politikak...) eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza lortzeko tresna eztabaiaezina izanik.
- Lidergo eta erantzukizun publiko batetik abiatuta, esparru sozial eta ekonomiko guztietarako lankidetzaren publiko-pribatuko eredu bat defendatzen dugu, hirugarren sektore sozialarekin batera, gobernantza kolaboratibo baten bidez kudeatua.
- Ekonomian, gizartearen eta ingurumen alorrean behar dugun iraunkortasuna. Ekonomia erresiliente eta jasangarri batek kalitatezko zerbitzu publikoetara eramango gaitu, eta, azken batean, herrialde aurreratuenen mailako ongizatera. Natura kontserbatzeak eta bere

baliabideak arduraz erabiltzeak onura zuzena ekarriko die gizarte-ongizateari eta ekonomia iraunkorrari.

- Euskadi Europako nazio da eta izan behar du, gizarterik aurreratuenen maila berean, sozialki eta ingurumenari dagokionez.
- Mundu global batean bizi garela aitortzea; beraz, Euskadi hobeagoa sortzeko ez ezik, Europa eta mundu hobearen eraikitzearen konpromisoa daukagu
- Berrikuntza, ebaluazioa, Compliancea gobernuan eta politika publikoen gardentasuna, etengabe hobetzen jarraitzeko tresna gisa.

5 NAZIO ASKEAGOA ETA OPARAGOAGOA ERAIKITZEN JARRAITZEKO ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK. Justizia soziala eta eskubideen bermea herritarrentzat

Atal honetan ezarriko dira datozen urteetan Eusko Alderdi Jeltzalearen jarduna inspiratuko duten gidalerro estrategikoak, nazio askeago eta oparagoa eraikitzearen, justizia sozialarekin eta herritarrentzako eskubideen bermearekin.

Gure erronkak eta ekonomia irekia duen edozein gizarte aurreratuarenak ez dira oso ezberdinak.

Hala, Draghi Txostenak dio Europa lehiakortasuna galtzen ari dela Amerikako Estatu Batuen eta Txinaren aurrean, eta, joera hori bizkor eta sendotasunez irauli ezik, Europak ezin izango diola bere ongizate-eredu diferentzialari eutsi, ez baitu baliabide publiko nahikorik horiek gerora finantzatzeko jarraitzeko. Estatuei ere eskatzen die Europa gehiago izateko eta gaur egun dagoen gobernantza-arazoa konpontzeko.

Europar Batasuna nazio gisa garatzeko aukera emango digun esparrua izanik, eskumen handiagoak izango dituen Europa bat eskatzen dugu, estatuen eta autonomia-erkidegoen kontura bada ere, eta subsidiarotasun-printzipioa aplikatzearen bidez autonomia handiagoa hartuz, batez ere ekonomiaren, gizartearen eta zergen arloetan.

5.1 Hasierako irizpena

Era berean, garrantzitsu jotzen da informazioa jasotzea beste herrialde batzuetan bizi diren alderdikideengandik eta/edo alderdizaleengandik. Pertsona horiek beren lan- edo egoitza-herrialdeetan egiten diren ekintza edo mugimenduen joera edo ikuspegi berriei buruzko datuak eman ditzakete. Informazio hori guztia baliagarria izan daiteke analisiak egiteko, unean uneko egoerari aurrea hartzeko eta edozein arlotan ikuspegi orokorrako batekin erabakiak hartzeko.

Eta, hori oinarri hartuta, funtsezkoa da hiru administrazio-eremuetako eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazio- eta lankidetzaren dinamika garatzeko ahalegin irmoa egitea, garapen-estrategia horien inguruan sinergiak eta elkarlanerako aukerak identifikatzeko.

Azken batean, administrazio-eremu bakoitzeko ekosistemen arteko harremanak finkatzea, aurkaritzat jo gabe, aliatutzat baizik. Ikuspegi global batetik, lurralde mugakideak batzuetan elkarren artean lehiatzen dira, eta askotan zuzenena da elkarlanaren bidea aukeratzea (sinergiak identifikatuz, bikoiztasunak aztertuz...), geografikoki urrunago dauden beste eremu ekonomiko batzuekin hobeto lehiatzeko. Bereziki EAEz, Nafarroaz eta Iparraldeaz ari bagara. Gainera, pentsamolde hori indartu behar dugu antzeko trebetasunak eta interesak dituzten eskualdeekin edo garapen ekonomikoko eremuekin praktikan jartzeko, lankidetza adimendunaren Europako eredua bezalako mekanismoak aplikatuz.

Erantzun egokia eman behar diogu hiru administrazio-eremu (EAE, Nafarroa eta Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoa) bateratzen dituen Herri izateak alderdi ekonomikotik gobernatzeko dakarren zailtasunari. EAJ-PNVk lankidetza ekonomiko-sozial egonkorreko esparruak lantzen eta artikulatzen jakin behar du, hirurok ditugun erronketarako estrategia komunekin.

Txosten honek 3 ataletan biltzen ditu orientazio estrategikoak. Lehenengo biek munduko bi erronka handiei erantzuten diete (erronka demografiko-soziala eta trantsizio klimatiko-energetiko-digitala), eta hirugarrenak kontu publikoen iraunkortasuna eta administrazioaren funtzionamendua jorratzen ditu.

Partekatzen ditugun erronkak azter ditzagun, beraz:

5.2 Euskal ekonomia. Klimaren erronka eta erronka digitala. Egungo enpresa ehuna eta erronka estrategiko berriak

5.2.1 Energia. Trantsizio klimatikoa

Klima-aldaketa da zientifikoki egiaztatuta geratu den errealitatea, eta, beraz, energia-trantsizioa premia ukaezina da. Gure helburua da zentzuz eta era arrazoitu eta ordenatuan egitea, aldi berean klima-aldaketaaren aurkako borrokan aurrerapen esanguratsuak eta gure herrialdearen lehiakortasunean hobekuntzak lortzeko.

Deskarbonizazioa ezin da desindustrializazioaren sinonimo izan: trantsizio azkar batek, non gure ekonomiak aurrera egingo duen gure inguruko eta munduko ekonomiek egiten dutenaz arduratu gabe, Euzkadiko lanpostu ugari arriskuan jar ditzake eta lehiakortasun galera esanguratsu batera eramango gaitzake. Aitzitik, trantsizio geldoa egiteak eta beste ekonomia batzuen oso atzetik joateak, lehiakortasunaren galera-egoera berera eramango gaitu, gure produktuak edo zerbitzuak baztertuta, jasangarritasun-estandarrek ez betetzeagatik. EAJ-PNVren aldetik, gure betebeharra da euskal industria zaintzea, eta deskarbonizazioaren bidean laguntzea, egokitze arin eta eraginkorra ahalbidetuko duten industria-politikak sustatuz, aukera-berdintasunean ingurune global batean lehiatu ahal izateko.

Denborari dagokionez deskarbonizazio goiztiarrari heldu behar diogu, lehiakortasuna hobetuz eta gure industriaren estandarrei eutsiz eta horiek handituz.

Energia-trantsizio zuzen eta zuzen baterako estrategiaren gakoak ondoren daude laburtuta:

- Aldi berean eta intentsitate berberarekin eta eskakizun-maila berberarekin heltzea industriaren eta industriari atxikitako zerbitzu aurreratuen emisioen murrizketari eta industriaren eta berarekin dakartzan zerbitzu aurreratuen garrantzia areagotzeki.
- Teknologia garbien inguruan kate industrial bat sortzea, berrikuntza teknologikoan oinarrituta. Gure Herrian ez dugu jatorri berriztagarriko energia askorik sortzen, baina badakigu ekipoak fabrikatzen. Trantsizio energetikoak aukera berriak irekiko ditu, eta aukera horietan kokatzea dagokigu, hala nola hidrogeno berdea edo erregai berriztagarriak sortzea.
Arestian azaldutako esparru-estrategiak balio estrategiko eta berrikuntza teknologiko handiko enpresak eta startupak sortzeko eta birsortzeko laguntza-programa espezifikoak ere jaso behar ditu, finantzaketa, mentoretza eta inbertsio-sareetarako sarbidea eskainiz.

Azkenik, esparru digitalak ere aukerak eskaintzen ditu eremu horretan, finantza-berrikuntza teknologikoko zerbitzuak edo fintech-ak, ordainbideak eta diru elektronikoa, Europako eIDAS 2 Erregelamendu berriaren "Europako Nortasun Digitalaren Zorroa" (EUDI), euro digitalaren proiektu berriak eta banku-backofficeko zerbitzu aurreratuak erakarriz eta sortuz.

Arlo honetan ere, ezin ditugu alde batera utzi txanpon digitalak edo kriptomonetak, horien erabilerak hazkunde esponentziala izan baitu. Arau-esparru egonkor baten xede izan behar du, eta mota horretako txanponak orokortzeak gure ekonomian izan ditzakeen era guztietako eraginak aztertu behar ditugu, Euskadi osoan erabil daitekeen moneta birtual propio bat erabiltzea baztertu gabe.

Euskal finantza-sektore osoari eskatzen diogu Euskadiko hiritargoarekiko hurbiltasuna zaintzea, eten digitala saihestuz.

5.2.10 Euskadiko ekonomia soziala

Euskadiko gizarte-ekonomia gure herriaren nortasun-ikurra da dagoeneko. LANEren 193/2002 Hitzarmena betetzeko zain dauden kooperatibei eta lan-sozietateei buruz ari gara. Hitzarmen horren arabera, gobernuek nahitaez bete behar dituzte politika sozial eta publikoko helburu jakin batzuei erantzuten dieten kooperatiben, lan-sozietateen eta gizarte-ekonomia osatzen duten beste erakunde batzuen jarduerak babesteko neurriak, hala nola enplegua sustatzea.

5.2.11 Aisia, kirola eta kalitatezko turismoa

Aisialdi- eta kirol-jarduerak gero eta indar handiagoa du herrialdeko BPGn. Horregatik, gure ehun ekonomikoa dibertsifikatzeko eta zabaltzeko aukera duten sektore horien garrantzia kontuan hartu behar dugu, kirol-sektoreko enpresen bidez (kirol-produktuak, ehungintzakoak, teknologikoak), osasunari lotutakoak, aisialdiari lotutakoak eta ongizateari lotutakoak.

Turismoaren sektorearen garrantzi erlatiboa nabarmen handitu da, baina lan handia egin behar dugu kalitatezko turismoa erakartzeko, iraunkortasunean eta zerbitzuaren kalitatean oinarritua, gune jakin batzuk presio turistikoaren ondorioz gentrifikatzea saihestuz.

5.3 Trantsizio demografikoa eta soziala Euskadin

Euskal gizarteak, munduko gizarte aurreratu orok bezala, eraldaketa sozial bati aurre egin behar dio, eta eraldaketa horrek jarraian aztertuko ditugun hainbat elementuri eragiten die, gure ikuspegi humanista eta abertzaletik eremu horretan garatu beharreko estrategiak eta ekintzak adieraziz.

Hala ere, azaltzen ari garen kontzeptu bakoitza eta horiei politika publikoak gauzatuz aurre egiteko modua ezin dira bereizita ulertu, batera baizik.

Politika publiko guztiek pertsonarengan eta Komunitatean duten garrantzia azpimarratu behar dugu, jarduteko ardatz nagusi gisa; horrela, lankidetzako gobernantza finkatu behar dugu gizartearekiko eta beste erakunde batzuekiko lankidetzaren prozesuetan.

Familiak oinarrizko laguntza-sarea izaten jarraitzen du euskal gizartean, sozializatzeko bitartekoa eta pertsonak garatzeko eta zaintzeko esparrua. Krisi eta zailtasun sozial, ekonomiko eta demografikoek ere aukera eman dute familiak horien ondorioak arintzeko gaitasuna duela berriz deskubritzeko. Belaunaldien arteko elkartasunerako gunea da, eta komunitatearen erantzukizuna eta balioa gara daitezke bertan.

5.3.1 Biztanleriaren zahartzea

BIZI-ITXAROPENA HANDITZEA gizartearen LORPENik handienetako bat da, eta aukera ugari eskaintzen ditu gizarte-, ekonomia- eta kultura-mailan. Ebidentziak erakusten du alderdi ekonomiko, politiko eta sozialetan talde demografiko esanguratsuena 55 urtetik gorakoena izango dela.

Hala ere, **biztanleriaren zahartze progresiboak eta jaiotza-tasa baxuek eragina izango dute** adinekoen bizi-kalitatean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretan, zaintzan eta laguntzetan, pentsio- eta osasun-sisteman, eta biztanleria gero eta ahulagoa, hauskorra eta mendekoa artatzeko beharrezko azpiegiturretan.

Datozen urteotan gizartean izango diren pertsona nagusien artean izango dira komunitatearen alde lan egiteko prest eta gaitasunarekin egongo diren pertsonak eta ahultasun eta mendekotasun egoeran egongo diren pertsonak, beren gaitasunen arabera ekarpena egingo dutenak. Buruko gaixotasunak

areagotuko direla aurreikus liteke, bai eta nahi ez diren bakardade egoerak ere, profilen aniztasun eta konplexutasuna areagotuz.

Egoera horren aurrean, alderdi gisa jarduteko proposamenak honako hauek izango lirateke:

- **Zahartze aktiboa eta bizitza osoa sustatzea bizi-zikloaren ikuspegitik:** "aktibo" adjektiboak jarduera eta adinekoak bere bizitzaren eta zahartzearen eragile izateko duen gaitasuna biltzen ditu, jarduera eta parte-hartzea, osasuna, independentzia eta zahartze ona uztartuz. Lankidetzak publiko-pribatu-sozialetik, esku hartzeko esparruak eratu eta babestu behar ditugu, zahartze ESANGURATSUA eta osasungarria orokortzeko, adinekoei beren garapen pertsonalean laguntzeko, beren komunitatearekin bizitza osoa eta konprometituak garatzeko aukerak bultzatzeko, laguntza-harremanak eraikitzen laguntzeko eta bizi-ohitura osasungarriak hartzen eta/edo zabaltzen laguntzeko, beren gaitasun funtzionalei eutsiz.
- **Prebentzioa, osasunaren autozainketa eta narriadura kognitiboaren atzerapena sustatzea:** Funtsezkoak izango dira adinekoen ongizate integrala sustatzeko, erabateko eta zentzuzko bizi-proiektu bat garatzen lagun dezaten, adinekoen gaitasun funtzionala zainduz eta sustatuz, gaitasun kognitiboaren pixkanakako galera atzeratuz. Euskadi aitzindari eta erreferente bihurtu behar da narriadura kognitiboari lotutako gaixotasunak prebenitzeko eta kudeatzeko arloan, eta bereziki Alzheimerri dagokionez, bai oinarritzko ikerketari dagokionez, bai ikerketa aplikatuan, bai garapen teknologikoan eta esparru horretan garatuko diren ekimenak babesteko orduan ere.
- **Nahi ez diren bakardadeak prebenitzea:** Pertsonen arteko bakardadeari aurre egiteak eta egoera horiek murrizteak (nagusi eta gazteen artean) estrategia bereziak hedatzea eskatzen dute, behaketa-lana egin dezaten, egoerei aurre hartuz, toki mailan programak eta ekimenak abian jarri gizartea eta komunitatea indartzeko eta herritarren parte hartzea eta belaunaldien arteko ikuspegia sustatzeko. Bakardadearen kausak eta bakardade sentipenak azaleratzeko moduak ezberdinak dira nagusien eta gazteen artean, eta beraz neurriak ere ezberdinak izan beharko dira gizataldearen arabera.
- **Zaintza-ekosistemen eta gobernantza kolaboratiboaren alde egitea:** Babes-sistemak agertzen ari dira ikuspegi komunitario batetik artikulatzeko lankidetzak gisa, modu batean edo bestean pertsonen zaintzan parte hartzen duten erakunde eta entitate guztien parte-hartzearekin, OSASUNAREN EREMUA NABARMENDUZ eta prozesu horretan pertsona eta bere hurbileko ingurunea protagonista bihurtuz.
- **Zilarrezko ekonomia edo silver economy sustatzea:** Lehenago jorratu da eta jarduera estrategikotzat jo da. Alde batetik, biztanleriaren zahartzeak eta bizi itxaropena handitzeak premia eta zerbitzu berriak planteatzen ditu, eta, bestetik, haien bizi-kalitatea handitzeak aukera eman behar du adinekoek gizarteko agente aktibo gisa duten gaitasuna, esperientzia eta ezagutza aprobetxatzeko (erretiro aktiboa, boluntarioria, etab.).
- **Berrikuntzaren eta ezagutzaren aldeko lana:** Zahartzearen alorrean Euskadi erreferentziazko lurralde izan dadin, ezagutza sortuz, esperimentazioaren bidez, ekimen berritzaileak saiaturik eta ekintzailak zein barne-ekintzailak bidez, pertsonen ongizate integrala genero ikuspegi batetik hobetzeko. Osasun- eta zainketa-saretik, lanbide-heziketatik eta unibertsitatetik ekimen berriak zabalduko dira berrikuntza sozialean, soziosanitarioan, teknologikoan eta enpresa-berrikuntzan.

oinarrituta, eta horiek funtsezkoak izango dira etorkizuneko politika publikoak eta estrategia pribatu berriak garatzeko.

- **Gizarte Segurantzaren prestazio osagarriak orokortzea.**

Babesten dugun erretiro-, ezintasun- eta alarguntza-prestazioen sistema publikoa da, lehen zutabea deritzona (Lovainako kodea). Prestazio horren birjarpen-tasa %75 da Euskadin, edo, bestela esanda, erretiro publikoaren prestazioak jasotako azken soldataren % 75 estaltzen du (2013an % 87 zen). Europan, batez bestekoa %50,8koa da. Alderdiak defendatu behar du lehen zutabetik birjarpen-tasa ahalik eta handiena eskaintzea, baina zahartze-indizeek eta jaiotza-tasa baxuak tasa hori denboran jaitea ekar dezakete, Europako HERRIALDEETAKOAREKIN berdinduz. Pentsioen sistema osagarriak orokortu behar ditugu, batez ere bigarren zutabea (pentsio-planak eta enpleguko BGAEak), belaunaldien arteko elkartasunaren printzipiotik abiatuta. Pizgarri fiskaleko neurri berriek eta arau-aldaketek oinarri izan behar dute orokortze horretarako herrialde-akordio bat lortzeko, bai besteren konturako langileentzat, bai autonomoentzat.

5.3.2 Zaintza eredua

Bizi-itxaropenaren igoerak eta beste egitura-aldaketa batzuek, hala nola familia-ereduek, zainketez esparruan lan egiteko behar den pertsona-kopuruaren gorakadak eta profesional horien urritasunak, Euskadiri eragin diote zainketa-ereduaren eraldaketa sakonean murgilduta egotea

Alderdiak bere instantzia guztietatik babesten du **zaintza-eredu unibertsala, komunitarioa eta pertsonarengan oinarritua**, pertsonaren bizi-ziklo osoan **zainketa integralak** ematen dituen, unean uneko premia aldakorretara egokituz eta etxeko arreta instituzionalizazioaren aurretik lehenetsiz.

Gobernantza kolaboratibo batean ainguratutako zainketa-eredu bat, non sistemen, erakunde publiko zein pribatuen eta gizarte-ekonomiakoen elkarrekintza ematen baita, pertsonaren eta haren zaintza-ekosistemaren ezinbesteko parte-hartzearekin.

Zaintza publikoaren, erantzukizunaren eta lidergo publikoaren eredua da gurea, baina lankidetzako publiko-pribatuaren eta publiko sozialaren bidez ematen dena gizarte-kolektibo guztiak (hirugarren sektorea) inplikaturik, bai politika publikoak zehazteko orduan definizioan, bai zerbitzuak ematerakoan zein ebaluatzerakoan.

Ongizate-sistemako zerbitzu guztiak ez dituzte funtzionario publikoek eman behar. Gure helburu ukaezina da laguntzak eta zerbitzuak jasotzen dituzten **pertsonen bizi-kalitatea hobetzea**. Administrazio publikoak zerbitzuen estaldura eta kalitatea zaindu beharko ditu.

Bilakaera horrek zainketa-zentroak ere hartzen ditu, eta pertsona bakoitzaren premietara eta nahietara egokitzen ditu, bere sare afektiboaren parte-hartze aktiboarekin, bizitzan zehar eboluzionatzen duten loturak barne. Espazio horiek ingurune abegikorrago bihurtu nahi dira, etxe baten antzekoak, eta, aldi berean, pertsonarengan oinarritutako zaintza-eredu bat eraiki.

Gizarte osoa zaintzaren erronkan inplikatzeko da gure helburua. Gaur egun, zaintza profesionala eta familiarra emakumeen esku dago oraindik. Egoera horri buelta eman behar zaio, zeharkako politika

publikoak erabakitasunez bultzatuz, gizarte osoa inplikatur zaintza profesionalari eta familiarrari prestigioa eta duintasuna emateko, hori lortzeko hezkuntza- eta sentsibilizazio-tresnak ere erabiliz.

Zainketetan, zainketak jasotzen dituzten pertsonen ahalduntzea eta bizitza duina eta kalitatezkoa sustatzea bilatzen dugu. Politika publikoek pertsonarengan jarri behar dute arreta nagusia, nor bere patua erabakitzeko orduan duen protagonismoa bermatuz eta bere bizi-proiektua garatzeko beharrezkoak diren laguntzak emanez, aldi berean zaintzak ongizate kolektiborako funtsezko ardatz gisa duen balioa eta garrantzia aitortuz.

5.3.3 Jaiotza-tasa

Jaiotza-tasa eta familia-eredu berriak. Familia-eredu berriek eraldaketa nabarmena izan dute azken hamarkadetan, egungo familia-egituren aniztasuna islatuz. Eredu horiek ez dira eskema tradizionalera mugatzen, eta egungo familiak izan daitezke guraso bakarreko familiak, berreratutakoak, belaunaldi anitzekoak eta sexu bereko bikoteek osatutakoak. LGTB+ kolektiboa familiaren definizioan sartzea funtsezko aurrerapausoa da, pertsona guztiek, sexu-orientazioa edo genero-identitatea gorabehera, familia bat baldintza berdinetan osatzeko duten eskubidea onartzen baitu. Aldaketa horrek erakusten du gizarteak eredu inklusiboago baterantz izan duen bilakaera, elkarrekin bizitzeko eta familia ulertzeko modu guztiak errespetatzen dituen, familia-konfigurazio guztiei laguntza eta babesa emanez.

Arestian esan bezala, funtsezkoa da familia-ereduei buruzko azterketa zabaltzea, familia bat osatzeko dauden bideak aitortuz eta babestuz, jaiotza-tasaren kontzeptutik harago.

Euskal Autonomia Erkidegoko jaiotza berrien tasa (6,1 jaiotza mila biztanleko) oso desberdina da 50 urte lehenago genuenaren aldean (19,1), eta familia-unitatearen kontzeptua dibertsifikatu egin da, eta horrek gizarte-arretako behar gero eta handiagoak sortzen ditu, premia ekonomikoek, teknologikoek eta profesionalei dagokien inaktuarekin. Azken urteetako jaiotza-tasa txikiek hainbat faktoreren eragina izan dute, bai sozioekonomikoak bai egiturazkoak, hala nola gazteen langabezia eta etxebizitza lortzeko zailtasunak, bai eta kultura-, hezkuntza- eta osasun-elementuak ere. Alderdi horiek direla eta, pertsona askok familia bat osatzeko erabakia atzeratu dute, eta horrek, askotan, amatasunaren eta/edo aitatasunaren adina atzeratzea dakar.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek gurasoentzako laguntza-formulak antolatu dituzte hazkuntzaren lehen urteetarako, pizgarri ekonomikoekin eta kontziliatzeko baimen edo lizentziekin. Bide horretatik aurrera egin behar dugu, ahalegin hori indartu eta bultzatu behar dugu.

Euskal Administrazioek laguntza formulak artikulatu dituzte gurasoentzat, hazkuntzako lehen urteetarako, pizgarri ekonomikoekin eta lana eta bizitza uztartzeko baimen eta lizentziekin. Hauxe ere bada landu eta bultzatu behar dugun eredu

Era berean, berritzaileak izan behar dugu, gizarte gisa, aldi berean beste mekanismo batzuk bultzatzen, gaur egungoak baino askoz ere adin goiztiarragoan seme-alabak izateko prest dauden pertsonen laguntzeko.

Jaiotza-tasari eman behareko bultzadak kontuan izan behar du, halaber, Europa osoan hainbat arrazoiengatik gertatzen ari den ernalezintasunaren hazkundeak haren gainean duen eragina (6 pertsonatik 1, OMEk berriki egindako ikerketa baten arabera). Arazo horri aurre egiteko, funtsezkoa da ugalkortasun-politikak ezartzea, herritarrei eskaintzen zaizkien ugalketa-medikuntzako teknikak eta horien indikazioak zabaltzea, eta horietarako sarbidea erraztea familia-eredu berriak baztertu gabe.

Pertsona horiei berme-errenta bat emateko formulak aztertu eta, hala badagokio, ezarri behar dira, lan-merkatura itzuli arte, beren karrera profesionala bermatuko duten neurriekin, hala nola prestakuntzarekin, bekadun ikasketak hasteko/amaitzeko laguntzarekin eta enplegua bilatzeko orientazioarekin batera.

Jaiotza-tasaren jaitsiera faktore ekonomikoekin eta lanekoekin ez ezik, bizimoduarekin eta gizarte-ereduarekin lotutako kultura-aldaketekin ere lotzen da. Hausnarketa sakona egin behar da egungo egoera eta horren kausak ulertzeko, arazoari modu integralean helduko dioten ekintzak ezarri ahal izateko.

5.3.4 Desparekotasun-egoerak. Emakume eta gizonen arteko parekotasuna

Gure diagnostikoan azpimarratzen da gizarte-kohesioa Herri baten lehiakortasunarekin lotuta dagoela, baina azpimarratzen dugu ezin dela gizarte-kohesiorik edo benetako lehiakortasunik egon desberdintasun egoerek bere horretan jarraitzen duten bitartean, bizitzaren alderdi guztiei eragiten baitiete. Generokoek justiziari eta oinarritzko eskubideei ez ezik, lehiakortasunari ere eragiten diote, emakumeen talentua ekoizpen-sistemara eta erantzukizun handieneko lanpostuetara iristea zailtzen edo eragozten baitute.

Desparekotasun- arrakalak murrizteko urrats eta ahalegin bakoitzak, ez bakarrik politika publikoetatik, baita gizarteko esparru guztietatik ere, EAJ-PNVren izena izango du. Horrela, berretsi egiten dugu gizarte kohesionatuagoa eta berdintasunezkoagoa eraikitze konpromisoa, genero-desberdintasunen aurkako borroka funtsezko lehentasuntzat esplizituki aitortuko duena.

Desberdintasun sozialen aurkako etengabeko borroka horretan, eta gizarte zuzenago baterantz aurrera egiteko bidean, **emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna gainditu gabeko ikasgaia da oraindik**. Benetako berdintasun eraginkorrera iritsi behar dugu. Eskubidea izateaz gain, gizarte osoaren ongizatean eta sistema demokratikoaren indartzean eragiten duen gaia da, eta, beraz, ezinbestekoa da gizarte osoa tartean sartzeari.

Gizarte-eragile guztien inplikazioa ezinbestekoa izateaz gain, gizonen konpromisoa eta parte-hartze aktiboa FUNTSEZKOA DA benetako aldaketa sustatzeko. Berdintasunerako balioetan hezte eta sentsibilizatzea ezinbestekoak izango dira hori lortzeko.

Gainera, ahalegin handia egin beharko dugu ondoren azaltzen diren jardueretan:

- **Soldata arrakala ezabatzea:**

Aukera berdintasuna sustatzea enplegua lortzeari, lan-baldintzei eta erantzukizun-postuei dagokienez; emakumeen ekintzailatza sustatzea; lana eta familia bateragarri egitea, baita genero-ikuspegia duen osasun-arreta ere; hezkuntzarako berdintasunezko sarbidea izatea, batez ere STEMetan; edo zaintza-eremuaren feminizaziorik eza, oraindik ere, funtsezko

erronkak dira: soldata-arrakala desagerraraztea; aukera-berdintasuna sustatzea enplegua lortzeari, lan-baldintzei eta erantzukizun-postuei dagokienez; EMAKUMEEN ekintzailatza sustatzea; lana eta familia bateragarri egitea, baita genero-ikuspegia duen osasun-arreta ere; hezkuntzarako berdintasunezko sarbidea izatea, bereziki ZIENTZIEN ETA TEKNOLOGIEN ARLOETAN; edo zainketen esparrua desfeminizatzea funtsezko erronkak dira oraindik.

- **Indarkeria matxista desagerraraztea:**

Indarkeria hori da emakumeen eta gizonen arteko desparekotasun egoeraren adierazle eta adierazpenik krudelena, bereziki ahulenei dagokionez. Horretarako, ikuspegi feministak eta genero-ikuspegiak funtsezko zeregina dute indarkeria-mota horri aurre egiteko, egiturazkoa baita. Indarkeria hori gizarte osoaren erabateko eta aho bateko gaitzespena jaso behar du.

Indarkeria matxista prebenitzeko, aniztasunean eta emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasunaren errespetuan oinarritutako bizikidetza-ereduak sustatu behar dira, bai eta balio horiek lantzeko heziketa ere. Indarkeria horri aurre egin behar zaio biktima justiziaren, polizien, osasunaren eta gizarte-babesaren arloko protokolo eta bitartekoen bidez babestuko duten lege eta jarduketekin.

Era berean, emakumeen ahalduntzea eta sektoreartekotasuna arlo horri heltzeko orduan, baita genero-ikuspegia duten politikak bermatzea ere, betetzeke dauden helburuak izaten jarraituko dute.

5.3.5 LGTBI+ aniztasuna

Azken hamarkadetan, LGTBI+ pertsonen ikusi dute nola egin duten aurrera beren eskubideak gauzatzeko bidean, eta EAJ-PNVk horietan parte hartu du izatezko bikoteen erregistroa bultzatuz, homosexualen arteko ezkontzak babestuz, autodeterminazioa bultzatuz eta Trans pertsonen sexua erregistratzea bultzatuz edo intersex pertsonen segurtasuna ematea babestuz.

Hala ere, beharrezkoa da nortasunen eta orientabideen aniztasuna errespetatu eta ospatuko duen gizarte-eredu baterantz aurrera egitea, sexu- eta genero-aniztasuna berdintasunaren berezko parte dela aitortuz. Ikuspegi horrek, LGTBI+ pertsonen aurre egin behar dieten oztopoak eraistea gain, pertsona guztiak genero-estereotipoek eta gizarte-itxaropenek ezarritako mugetatik askatzen laguntzen du. Era berean, emakumeen ahalduntzea, gutxiengoak, gorroto-dELITUEN biktimen defentsa eta eskola-jazarpenaren biktimen babesa politika eta protokolo publikoen bidez bermatu behar dira, gizarte berdintasunezkoa eta desberdina errespetatzen duena eraikitzea ahalbidetuko dutenak. Hainbat neurri bultzatu behar ditugu, hala nola LGTBI+ kultura- eta aisialdi-gune inklusiboak sustatzea, aniztasun hori ikusarazteko eta errespetatzeko. LGTBI+ aniztasunarekiko hezkuntza eta prestakuntza inklusiboa bermatzea prestakuntza-maila guztietan. Errespetuzko eta estigmatizaziorik gabeko tratua bermatuko duten osasun-politikak bultzatzea.

5.3.6 Osasuna

OSASUN SISTEMA ezberdina da EAE eta Nafarroan, nagusiki publikoa den eredu batean oinarrituta sektore pribatuarekin elkarlanean ematen dena; eta Iparraldean, zerbitzu pribatuek emanikoa eta arlo publikotik ordaindua.

EAJ-PNVk OSASUN EREDU PUBLIKO, UNIBERTSAL ETA EKITATIBO bat defendatzen du, herritar guztiengana berdintasunez eta aurrekontu publikoaren kontura iritsi behar duena. Hala ere, sektore pribatua ere aintzat hartu behar da, artatze-gaitasuna duelako eta berrikuntza, enplegua eta aberastasuna sortzen dituelako, bai eta arreta publikoa destenkatzeko mekanismo bat ere.

Gure autogobernuak ematen dizkigun eskumenei esker, bikaintasunera iritsi den osasun bat dugu, kalitatezko ospitale- eta lehen mailako arreta sarearekin, gaitasun handiko langile profesionalekin, etengabeko ikerketa eta berrikuntzarekin, baliabide fisikoetan, giza baliabideetan eta teknologikoetan inbertsio iraunkorra eta gero eta handiagoa eginez, eta kalitatezko arreta sanitario zein soziosanitarioarekin.

Hala ere, gizarte-zerbitzuak horren nabarmen areagotu izanak eta ematen duten arretak bi eremu horiek koordinatu beharra ekarri dute: osasuna eta arreta soziosanitarioa; administrazio desberdinen eskumenekoak diren eremu horien arteko koordinazioak beharrezkoa du gobernantza kolaboratiboko irizpideak aplikatzea lurralde osoan garapen harmonikoa eta ekitatiboa ahalbidetuko duten eremuen artean.

Hala ere, osasungintzak ere, gizarteak bezala, bere eraldaketari aurre egiten dio, arreta-premia pertsonalizatuagoekin eta biztanleria gero eta zaharragoarekin.

Ahaztu gabe eremu horretan gaixotasuna artatzetik, osasuna ahalik eta denbora luzeenean mantentzera eta prebentzioa bilatzera igaro dela; osasunaren prebentzioa eta medikuntza pertsonalizatua etorkizuneko erronka handienetako bat izango dira, eta eragina izango dute gizarte kulturaren, hezkuntzan eta gaixotasun jakin batzuen prebentziorako, proba diagnostikoak ugaritzean.

Eta eraldaketa horri aurre egiteko, sektoreko profesionalen gabezia handia dugu. **Beharrezkoa da profesional horiek erakartzeko, trebatzeko eta fidelizatzeko ahalegina egitea, lehen mailako arretaren irudia berariaz indartzea eta mota guztietako arreta sanitarioetan teknologia abangoardistak txertatzea.**

Osasunaren esparru guztietan profesionalen sare bat izatea defendatzen dugu, osasun-ekosistemaren kalitatearen funtsezko oinarria izango dena. Gure profesionalen gaitasunak erakartzeko, prestatzeko, fidelizatzeko eta garatzeko gaitasuna etengabe egokitu dezagun, gure politikaren ardatz nagusi den aldetik.

Sistemak baliabide ugari eskatuko ditu, eta, beraz, horien iraunkortasuna beharrezkoa izango da. Koordainketa-sistemak etengabe berrikustea proposatzen dugu..

Osasunaren arloko ikerketa, prestakuntza eta ekintzailatza gero eta erabakigarriagoak izango dira etorkizunean. Berrikuntzaren abangoardian egoteko apustu hori osasun-ekosistemaren DNAren parte izan beharko da.

Osasuna, gero eta teknologia BERRITZAILEAGOEKIN eta OSASUN-ARRETA pertsonalizatuarekin, enplegu eta ezagutza asko sortuko dituen sektorea ere izan daiteke.

Era berean, mugaren bi aldeetako ospitaleen arteko elkarlanaren alde egiten dugu, batez ere azken pandemian bizi izandakoak bezalakoak gertatzen direnetarako. Mugaz gaindiko laguntzarako Europar Batasuneko hitzarmenak erabiltzea erraztuko dugu, finantzaketa publikoa duten mugaren bi aldeetako ospitaleetara joan ahal izateko.

5.3.7 Migratzaileak

Gaur egun, Euskadiko migrazio-saldoa positiboa da. Gazteen % 15 eta EAEko biztanleen %13,5 atzerritarrak dira.

Fluxu hori, aldi berean, erronka handia da, eta etorkizunerako aukera ere bai, baldin eta immigrazioaren egiturazko fenomenoak Herriaren garapen sozioekonomiko eta politikoan funtsezko faktore bihurtuko duten politika publiko eraginkorrak hedatzeko ausardia eta sen ona erakusten badugu.

EAJ-PNVk defendatzen du etorkizuneko euskal gizartea eraikiko dela kulturartekotasunean oinarritua, aniztasun handiarekin, ekarpen kultural desberdinekin, eta osaeran aberastasun eta aniztasun handiagoarekin.

Fenomeno hori kudeatzeko lanak lehentasuna izan behar du; askatasun indibiduala ahalik eta gehien errespetatzearen alde gaude, baina betiere Erkidegoaren beraren mesedetan.

Gizarte kohesionatu bat nahi dugu, kohesio horretan sakonduko duten harrera-politikak gauzatuko dituen, bizikidetza anitza erraztuz pertsona migratuen errotzea sustatuz, aniztasun horretatik lurraldeari eta kulturari lotutako pertsonen eta komunitateen artean harreman afektibo eta emozionalak ahalbidetuz, euskal nazioko kide izatearen sentimendua sustatuz.

301 BIS planteatzea, gizartea desegituratzera eta bizikidetza degradatzera baino ez daramaten etorkinen kolektiboaren gheztizazioari eta bazterketari buruz hitz egiteko.

Gizarte kohesionatu bat nahi dugu, kohesio horretan sakonduko duten harrera-politikak gauzatuko dituen, bizikidetza anitza erraztuz pertsona migratuen errotzea sustatuz, aniztasun horretatik lurraldeari eta kulturari lotutako pertsonen eta komunitateen artean harreman afektibo eta emozionalak ahalbidetuz, euskal nazioko kide izatearen sentimendua sustatuz. 301 BIS planteatzea, gizartea desegituratzera eta bizikidetza degradatzera baino ez daramaten etorkinen kolektiboaren gheztizazioari eta bazterketari buruz hitz egiteko.

Eta gure jardunbideak ondorengo printzipio hauek ditu ardatz:

- **Hedatu beharreko estrategiak askotarikoak dira nahitaez, profil eta behar desberdinak dituen kolektibo oso heterogeneoari erantzun behar baitiote; bazterkeria larrian dauden**

migratzaileei arreta ematek hasi eta beste herrialde batzuetako biztanleak erakartzearaino, kualifikazio jakin bateko lanpostuak betetzeko.

Profil bakoitzak ondo definitutako ibilbideak izan behar ditu, migratuari erabateko bizi-proiektu baterako aukera eskaintzeko, eskubide eta betebeharrak berdinetan.

- Migratzaileei ondorengo eskubideak bermatzeko **ahalegin berezia** egingo da: hezkuntza, osasun zerbitzuak, kultura eta hizkuntzak eta oso bereziki euskara.
- Gure gizartearen isla gara, jendarte solidarioa gara eta izaera hori islatu behar dugu harreraren eta integratzeko baldintzak eta aukerak eskaintzean, eta **aurre egingo diegu** beste alderdi eta/edo mugimendu batzuek egingo duten **planteamendu maximalista** arrazista edo xenofobo **orori**.
Euskadira etorri den edozein pertsonak bere bizi-proiektua gauzatzeko eta gure gizartearen parte aktibo izateko aukera guztiak izan behar dituela defendatzen dugun irmotasun berarekin defendatzen dugu **komunitatearekiko erantzukizuna badutela eta bete beharreko betebeharrak ere badituztela**, jatorrizko herrialdea eta errenta-maila edozein izanda ere.
- **Behar besteko arau- eta erregelamendu-aldaketak planteatu behar ditugu, MIGRAZIO-POLITIKAK osorik hedatzen lagunduko diguten tresnak erabili edo, hala badagokio, baldintzatu ahal izateko.**

Nolanahi ere, hedatuko den bestelako estrategia horrek, biztanleria migratzailearen profil desberdinak kontuan hartuta, gaikuntzan eta enplegarritasunean oinarritutako plan pertsonalizatua jaso beharko du. Biztanleria horren integrazioa baldintzatzen duten funtsezko bi elementuak enplegarritasuna eta etxebizitza eskuratzea baitira.

Eta, horien artean, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak dira zailtasun gehien dituztenak. Eta hainbat sektore ekonomikok industrian, eraikuntzan, ostalaritzan eta abarretan lanpostu jakin batzuk betetzeko pertsonak aurkitzeko zailtasuna adierazten duten testuinguruan gertatzen da.

Premia horiek bateratzeko lana egin behar da, biztanleria horrentzako lan-baimenak berehala ahalbidetuz eta gizarte-enpresak eta zainketa-kooperatibak sortzea bultzatuz, pertsona horiek ekonomikoki eta sozialki gizarteratzeko modu gisa.

Kolektibo hori integratzeko funtsezko elementua euskara da, gure esku dago gaur egun ezagutzen dugun eta datozen urteetan areagotuko den erronka horri heltzea, gure nortasunari, sen abertzaleari eta gure hizkuntza indartuari eutsiz. Pertsona horien euskalduntzeak, gizarte- eta lan-eremurako sarbidea hobetzeaz gain, bermatu egingo du komunitateko kide direla sentitzea, euskal gizartearen parte direla. Erronka izugarria da, eta ondo egitea dugu irtenbide bakarra.

Azken kontu bat: Euskadik ere premiaz gauzatu behar du beste **herrialde batzuetara jotzeko ekimena**, herritarrak kanpoan prestatzeko akordioak lortzeko eta, prestatutako biztanleria horretatik, zati bat

lanera etorriko den langile kualifikatua izateko, edo bertan dauden euskal enpresetako langileak izateko.

Ekimen hau, hainbat herrialdetan heda daitekeena, lankidetzak publiko-pribatua egin beharko da, jatorri-herrialdeak, prestakuntza-zentroak eta hartzaileak zehaztuz.

5.3.8 Etxebizitza

Bizi-proiektu bat garatzea ezinbestean lotuta dago indarrean dagoen araudian ezarritako bizigarritasun-estandar guztiak beteko dituen etxebizitza bat eskuratzearekin. Elementu hori oztupo garrantzitsuenetako bat bihurtu da gaur egun gazteentzat eta ez hain gazteentzat, baita migratzaileen kolektibo osoarentzat ere.

Eusko Jaurlaritzaren azken soziometroaren arabera (EAEko datuak), etxebizitzarekiko kezka biztanleriaren % 47ri eragiten dio, eta datu horiek ez dira oso desberdinak izango Nafarroan eta Iparraldean. Ahalik eta baldintzarik onenak lortzera bideratu behar dugu gure burua, beharrezkoak diren arau-aldaketak barne, bai inbertsio publikoa bai pribatua haz daitezen, etxebizitzaren merkatuan eskaintza handitzeko, eta, eskariaren kudeaketa adimentsu eta efizientearekin batera, tentsioan dauden eremuak deskongestionatu eta, bereziki, etxebizitzaren alokairuaren prezioak **moderatu eta merkatzeko**. Akordio handi baten beharra aldarrikatzen dugu, eskumen guztiak gauzatuz, gaur egungo eta etorkizuneko beharretara egokitutako etxebizitza-politika gara dezagun.

Etxebizitza eskuratzeko zailtasunari, erosketa- eta alokairu-prezio altuengatik, beste fenomeno bat gehitu zaio azken urteotan, batez ere hiriburuetan eta herrialdeko kostan tentsio handia duten eremuetan: **etxebizitza turistikoak**. Horregatik, etxebizitza- eta jarduera ekonomiko- eskubideak orekatzeko arau- eta gainbegiratze-neurriak ezarri behar dira, eskala txikian inbertitzeko askatasunari kalterik egin gabe, baina pertsona egoiliarrei kalte egingo dieten eta eskaintza desitxuratuko duten gentifikazio-prozesuak saihestuz, bereziki lehen aipatutako eremuetan.

Espainiako zein Frantziako arauetan aldaketak egin dira, opor- alokairuak mugatzeko eta alokairuaren prezioa arautu nahian.

Egin diren arau-aldaketek aurreikusitako helburuak betetzen ari diren edo espero ez diren ondorioak ematen ari diren aztertu behar da. Beste behin ere, eskumen eksklusiboa dugun eremuetan, kanpoko esku-sartzeak salatzea eta etxebizitzak eta horien alokairua erregulatzeko gure araudia garatzen jarraitzea defendatzen dugu.

Gure ustez, epe labur eta ertainerako irtenbidea ez da jabetza-eskubidea mugatzea, ezta Estatuek eskumen-esku-sartzeak egitea ere, baizik eta lehendik dagoen etxebizitza-eskaintza handitzea, etxebizitza hutsen ahalik eta jabe gehienek etxebizitza horiek merkaturatzeko eta Administrazioek etxebizitza publikoak sustatzen jarraitzeko beharrezko neurriak hartuz.

Etxebizitza duina eskuratu ahal izateko, mekanismo hauek ezarri behar dira:

- Ekimen publikoa: lurzoruak erosten eta etxebizitza publikoak eraikitzen jarraitzea, alokairuaren lehentasunezko helburuarekin. Dagokion euskal araudia aztertu behar da, udal-eskumeneko hirigintza-tresnen tramitazioa arindu ahal izateko, baldin eta tresna horien bidez etxebizitza-eskaintza handiagoa errazten bada.
- Bestalde, izaera publikoko etxebizitzaren kopurua handitzeko, urte anitzeko aurrekontu publikoez gain, **beste finantzabide batzuk ere aztertu beharko lirateke**. Horrela, funts publiko-pribatuen mekanismoak, arrazoizko eta gehiegizko errentagarritasuna bermatzen dutenak, xehetasunez aztertu beharreko alternatibak dira, epe labur eta ertainean lurzoru-parke eta etxebizitza publiko ugariago bat handitzeko.
- Ekimen publiko hori gure Herriko erakunde-maila guztietan zabaldu behar da elkarlanean, eta atalase batetik beherako errentak dituzten pertsonen edo bizikidetzaren unitateen zerbitzura egon behar du, baldin eta ohiko etxebizitza eskuratzeko laguntza publikoa behar badute. Etxebizitza horiek etengabe ikuskatu beharko dira, behar bezala erabil daitezten, iruzur-egoerak saihestuz.
- EAJ-PNVri dagokionez, premisa argi bat dugu abiapuntu: Kolektibo guztiei ohiko etxebizitza eskuratzeko orduan emango zaien laguntzaren kalterik gabe, **euskal gazteek ezin dute gehiago itxaron, eta ez dute gehiago itxaron behar**. Euskal administrazio publikoak erraztasunak eman behar dizkie aurrezki nahikoa ez duten gazteei hipoteka-mailegu bat eskuratzeko, abalen lineak eskuragarri jarri eta alokairu-fidantzak eratuz, beharrezkoak diren komunikazio- eta dibulgazio-ekintza guztiak garatuz.
- **Ekimen pribatua ere integratu behar da alokairu publikoko etxebizitzak eskaintzeko orduan**, administrazioak alokairuan jarritako etxebizitzagatik eskain ditzakeen pizgarri publikoen bidez.
- **Lankidetzaren publiko-pribatua, errealitate sozial berriei irtenbide berritzaileak bilatuz**, hala nola etxebizitzaren irisgarritasun zuzena, aldi baterako bizitokiak, etxebizitza kolaboratibo-cohousinga, belaunaldi ezberdinetako pertsonen partekatutako etxebizitzak, biziarteko usufruktuak edo tutoretzapeko apartamentuak, betiere segurtasun juridikoa bermatuz. Era berean, erabilera-lagapeneko erregimeneko etxebizitza kooperatibisten sustapenen eraikuntza aztertu behar da, eta horrek alokairu konbentzionalekoak edo etxebizitza libre bat erostekoak baino kuota txikiagoak emango ditu hilero, irabazi-asmorik gabe.
- Beharrezkoa eta premiazkoa da indarrean dauden arauak aztertzea, epeak murriztu eta oztopoak kendu ahal izateko udal-plangintzak jada antolatutako lurzoruetako hirigintza-kudeaketako izapideetan. Administrazioa sinplifikatzea funtsezkoa da eremu horretan.
- Hala ere, alokairuko etxebizitzaren eskaintza handitzeko epe labur eta ertainean egin daitekeen irtenbideetako bat da gaur egun **Euskadin HUTSIK dauden etxebizitza guztiak merkatura ateratzea**.

Berriketan egin den datu bilketaren arabera, EAEn 31.371 etxebizitza HUTS kudeagarri daude guztira, eta horietatik 5.921 aldi baterako egoitzetan edo beste udal-erri batzuetan lan-arrazoiengatik bizi diren pertsonen jabetzakoak dira. Ratio hori antzekoa izan daiteke Nafarroan eta Iparraldean.

Horretarako, hirigune degradatuetan eta hutsik geratzen ari direnetan hiri- eta gizarte-egokitzapenerako irtenbide berriak bultzatu behar dira, erabiltzen ez diren higiezinak eta/edo etxebizitzak erosiz (KOFRADIAK, KOMENTUAK...), eraberritu eta alokairuko parke publikoan sartzeko, gentrifikazioari aurre eginez. Halaber, aholkularitza publikoa emango zaie eremu degradatuetan jenderik gabeko etxebizitzak dituzten jabeei, etxebizitza horiek birgaitu eta bitartekaritza-programa publikoak eskura jar ditzaten, ALOKAIRUA SUSTATUZ.

Aztertu beharreko beste neurri bat da hiriguneetan eta merkataritza-jarduera txikia dutenetan erabiltzen ez diren etxabeen eta lonjen erabilera-aldaketak sustatzea, etxebizitza bihurtu ahal izateko. Era berean, udal-araudia malgutu behar da, azalera handiko etxebizitzaren bereizketa arindu ahal izateko, batez ere EAEko hiriburuetan.

Ekimen pribatuak sustatzea, EAEn Bizigune edo ASAPekin edo Nafarroan Nasuvinsarekin eremu publikoan daudenak bezalakoak, errenta mota guztietako maizterrentzako aukera gisa aztertuz. Horrela, bitartekaritza-lana pizgarri edo hobari fiskalen onuradun izan daitezke, batez ere merkatuko balioaren azpitik dauden kasuetan, errentarien gaitasunen arabera eskuragarriak diren alokairu-prezioak ezarri eta errentatzaileei errenta kobratuko zaiela ziurtatuz.

Ezin gara ahaztu babestutako beste etxebizitza mota batzuk sustatzeaz, hala nola alokairuko zein jabetzako BPE Sozialak, edo erregimen bereziko edo erregimen autonomikoko BPE Tasatuak; izan ere, aukera horiek lagungarri gerta daitezke etxebizitza sozialen eskaintza edo erregimen berezikoei buruz EAOn jasotzen den eskaintza iristen ez zaien gazteak emantzipatzeko.

Tributazio aldetik jabeari pizgarriak eman behar zaizkio, bai etxebizitza ingurumen-jasangarritasuneko irizpideen arabera egokitzeko obrak egiteko, bai alokairuan jartzeko. Horrela, etxebizitza-parkea modernizatzeako ekintzak eta hutsik dauden etxebizitzak alokairu-merkatura ateratzeak hobaria jasoko dute. Era berean, errealitate soziodemografiko berrietara egokitu behar da, eta kenkariak aplikatzeko tarteak zabaltzea behar dira, programa publikoak optimizatzearekin batera, lehen ohiko etxebizitza erostea edo alokatzea sustatzeko.

Bestalde, **titularra egoitza edo apartamentu babestuetan bizi den etxebizitza hutsen kasuan**, zaintza-egoera partikularrei aurre egiteko zenbateko nahikoak izatea eta etxebizitza alokairuaren merkatuan sartzeko kudeatu ahal izatea bateragarri egingo duten mekanismoak garatzeko aukera aztertu behar da. Era berean, egokitu gabeko etxebizitzaren kasuan, adineko pertsonen edo mugikortasun urriko pertsonen jabetzakoak badira, etxebizitza-parke publikoa truke edo permutarako tresna gisa erabiltzeko aukera aztertu behar da, adineko pertsona horiek irisgarritasun-baldintza egokiak dituzten etxebizitzetarako sarbidea ziurtatuz, eta egokitu gabeko etxebizitza, irisgarria denean, alokairu sozialerako erabili ahal izango da.

Era berean, saihestu egin behar dugu higiezinaren jabe diren dituzten funts handiek aktibo finantzario huts gisa erabiltzea eta Euskadiko etxebizitzarekin espekulatzea.

EAJ-PNV, halaber, etxebizitzaren okupazioaren aurka dago eta hala adierazten du, nahiz eta etxebizitza horiek jenderik gabe egon. Beharrezkoak diren lege-mekanismoak antolatu behar dira, arauen eta

bizikidetzaren aurkako jarrerak eman ez daitezen eta halakorik ematen denean berehalako konponbideak planteatzeko.

Eta azkenik, edozein bizi-proiektu garatzeko etxebizitza funtsezkoa dela aintzat harturik, gure ustez komenigarria da Alderdiaren barruan beharrezkoak diren jardunaldi eta monografikoak egitea, gure alderdikide eta jarraitzaileen artean sor daitezkeen hausnarketak eta irizpide ezberdinak bateragarri egiteko.

5.3.9 Derrigorrezko heziketa. Lanbide Heziketa. Unibertsitatea. Heziketa ez-formala.

Derrigorrezko heziketa

EAJ-PNVren hezkuntza-proiektua pertsona kritiko eta kontzienteak prestatzera bideratuta dago, eta EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko hezkuntza-espazioen multzoa osatzen dute. Hiru eremu administratiboen artean dituen ezberdintasunengatik finkatuta ez badago ere, funtsezko ezaugarriengatik da ezaguna: **sistema eleanitza** (euskarari balio berezia emanez); **malgua eta integratzailea** (inklusiboa izateko helburuarekin); **familien eredu eta parte-hartze librean oinarritua; Europako sistemekin konparagarria; eta kalitatearen eta bikaintasunaren aldeko ahalegin irmoa.**

Hezkuntza funtsezko zerbitzu publikoa, oinarritzkoa eta unibertsala da. Adostasun zabalak behar dira, eta Alderdiak, orain arte bezala, ekimenen buru izan behar du.

EAEEn onartutako Hezkuntza Ituna eta Hezkuntzari buruzko Lege berria, adostasun politiko, instituzional, akademiko eta profesional baten emaitza, izan daitezke jarduteko oinarria, eta erakundeen eta hezkuntza-eragileen arteko harremanak areagotu daitezke Euskadiko hiru erakunde-mailetan.

Hona hemen proposatutako ekintzak:

- Hezkuntza-eredu propioa garatzea eta ezagutaraztea. Kalitatezko hezkuntzaren aldeko hautua egiten duen eredu, unibertsala, eleanitza (euskara ardatz hartuta), plurala (eredu publiko, itundu eta pribatuarekin), hezkidetzakoa, berritzailea eta sortzailea, dinamikoa, inklusiboa, ekitatiboa, eraginkorra eta solidarioa. Euskal gizarteari eta munduari irekia, erabakigarria gizarte-kohesiorako eta berdintasuna bermatzeko. Eredu horretan digitalizazioak bere espazioa izango du, bere burua, pertsona guztiak eta ingurumena errespetatuko ditu, eta ikasleak hezkuntza-sistemaren erdigunean egongo dira.
- Euskara euskal hezkuntzaren ardatz egituratzaile gisa defendatzeak ez du eragozten gaztelania eta frantsesa Euskadi dagoen estatueta hizkuntza ofizial gisa eta ingeleseko hizkuntza-gaitasun aurreratuak sustatzea eta ziurtatzea.
- **Hezkuntza-sistemaren plan estrategikoan aurrera egitea**, iraunkortasuna, bizikidetzak, berdintasuna, kulturartekotasuna eta ongizate-estatua babesteko ekonomia-sarearen garrantzia sustatuz.

- **Heziketaren-kalitatea hobetzea**, mundu-mailan erreferenteak diren herrialdeen parekoa, eleaniztuna (gaztelania, frantsesa eta ingelesa), baina euskarari arreta berezia emanez eta etengabe ebaluatzeko mekanismoak barne hartuz eta ebaluazio-mekanismo etengabeekin.
- **Irakasleria trebatzeko eta ikerkuntzarako eredu propio eta kalitatezkoa sustatzea, bertoko unibertsitateekin elkarlanean**, irakasleen prestigioa eta izen ona indartuz, Euskaraz lan egiteko gaitasuna dutela bermatuz, ahoz zein idatziz.
- **Ikastetxeen autonomia sustatzea**, titulartasuna edozein dela ere, toki-erakundeekin lan eginez. Autonomia hori inguruneko baldintza berezietara egokitzea dela ulertu behar da, betiere araudian eta hezkuntza-administrazioak ezarritako helburu orokorrei lotuta. Finantzaketa publikoa jasotzen duten ikastetxeetan irakaskuntzaren doakotasuna bermatzea.
- **Antolamenduari** dagokionez, aniztasunari balioa ematea eta Euskaditik kanpoko ikasleak integratzera bideratutako estrategia bultzatzea.

Ahaleginaren kultura, ezagutzaren balioa, talentuaren sustapena eta hezkuntza digital etiko eta arduratsua sustatzea.

Eskola-jazarpenari erantzun azkarra eta eraginkorra ematea, cyberjazarpena bezalako modu berrien bilakaera ere ezagutu baitu. Beharrezkoa da arlo horretako planak, protokoloak eta prestakuntza-ekintzak etengabe eguneratzea hezkuntza-komunitate osoan, familientzat barne, ikasleen osotasuna uneoro bermatuz eta arreta berezia jarritz indarkeria matxistaren prebentzioari.

Eta, azkenik, jasangarritasunaren kultura eta ingurumen-erantzukizuna mugiaraztea, une oro ikasleen bizikidetza eta ongizatea bultzatuko dituen hezkuntza emozional eta soziala sustatuz.

Lanbide Heziketa

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak, Europan aintzatetsia, erreferente industrial bihurtu du gure Herria, eta langileak trebatu ditu behar diren trebakuntza guztietan. Enpresa-sarearekin lankidetzan, bikaintasunezko prestakuntzaren aldeko apustua egiten jarraitu behar dugu. Prestakuntza hori funtsezkoa da herrialdeari behar duen talentu kualifikatua eta ekintzailea emateko, ezarri den etengabeko hobekuntza- eta berrikuntza-ereduari jarraituz.
- Lanbide Heziketarako plan berriak definitzea, 2030-35ean planteatzen diren beharrei erantzunez, Europako Lehiakortasunaren Etorkizunari buruzko Planean ezarritakoaren ildotik.
- LH malgua sustatzea, pertsona guztientzat, duala, inklusiboa, integratzailea eta erronka klimatiko, energetiko, digital eta sozialen ondoriozko errealitate eta premia berriekin lerrokatua; LHren eta unibertsitateen arteko ibilbide bateratuen kopurua handitzen jarraitu behar dugu, ikastetxeen eta enpresa txiki eta ertainen artean berrikuntza aplikatua, ekintzailatza eta nazioartekotzea bultzatuz, eremu soziosanitarioko eta adinekoen zaintzako prestakuntza indartuz.
- Euskarazko LHko hezkuntza-eskaintza zabaltzea bultzatzea, derrigorrezko hezkuntzari jarraipena emanez.
- Hezkuntza-modalitate honetan ere STEM talentua sustatzea, bereziki emakumeen artean, industria-eremuan protagonismo handiagoa emanez.

Unibertsitate-esparrua

Euskadin izen handiko unibertsitateak ditugu (UPV-EHU, UPNA, UPPA, EUNEIZ, Deustu, UNAV, MU, UNED), neurri handi batean osagarriak direnak prestakuntza-eskaintzetan. Ondorengoak landuko ditugu:

- **Unibertsitate-bikaintasunaren kontzeptua** zehaztea, adierazle konparatibo zehatzak jarriz, eta, horrela, helburu zehatzak ezartzea, hala nola hamarkada bete barru Europako unibertsitate-ekosistema onenetako batean egotea.
- **Gure unibertsitateen eta Euskaditik kanpoko unibertsitateen arteko lankidetza sustatu behar dugu**, bereziki Euroeskualdearen esparruan, programa eta helburu argiekin, ikasleengan eta irakasleengan pentsatuz eta gizartearen aldaketei begira, beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko eta haien talentua atxikitzei bokazio argiarekin.
- Aurretik egin den lankidetzatik abiatuta, eta herrialdeko ehun ekonomiko eta sozialarekin batera, **dimentsio txikiko unibertsitate-ikasketetarako zentro bat eratzea, berezia bere konfigurazioan eta gobernantza-sisteman, eta arlo gutxi batzuetan espezializatuta egongo dena** premia estrategikoei erantzuteko, eskura ditugun ikertzaileak kontuan hartuta (eta beste herrialde batzuetako goi-mailako espezialistak erakarriz, ikertzaileek gure Herrian abangoardiako ezagutzak eskuratu eta eraman ahal izateko nazioarteko programak sustatuz).
- Gure unibertsitate-ekosistemak bere hedadura osoan handitu behar du **bere ikerketa-gaitasuna, eta ikerketa hori produkzio-sektorean hobeto transferitu behar du**. Unibertsitatea da oinarritzko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren ezagutzaren zentroa. Finantzaketa-iturriak eta ikertzaileen baldintzak hobetu behar ditugu. Helburu horretarako, eta aurrez zehaztutako programak eta helburuak lortzeko, Euskadin ezarri gabeko formulak aztertu behar dira, hala nola **'endowment' edo mezenasgoa**. Funtsa eratu da pertsona fisiko eta juridikoen ekarpenekin, eta ikerketa-programak funtsak ematen dituen errendimenduekin finantzatzen dira, nominalari eutsiz. Ekarpinak egiten dituzten pertsonak hobari fiskalen onuradun izango lirateke.

Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da unibertsitateen, administrazioen, enpresa-munduen, teknologia- eta ikerketa-zentroen arteko lankidetza.

Hezkuntza ez-formala:

Gaur egungo egoera konplexu horretan, komenigarria da hezkuntza ez-formala indartzea, herritarren partaidetzaren, bizikidetzaren eta inplikazio zibikoaren, sozialaren, kulturalaren eta politikoaren sentimenduak eta konpromisoak egituratzen dituzten balio komunitarioei dagokienez.

Balioak dituen komunitate baten legatua, euskal herritarrek izateko, bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko dugun modu berezia, "auzolana", "elkarlana" eta guztion ongiaren defentsa bezalako kontzeptuak barne hartzen dituen, bai eta hizkuntza, ondarea, tradizioa eta historia ere. Balio horien defentsa eta sustapena funtsezkoa da indibidualismoaren arriskuei, gehiegizko kontsumoari, kontrolik gabeko globalizazioari, betebeharrak gabeko eskubideei, berehalakotasunari eta abiadurari, azalekotasunari eta pentsamendu hauskorrari edo Herri gisa, nazio gisa existitzea, izatea eta elkarrekin bizitzea mehatxatu dezaketen mezu uniformizatzaleei aurre egiteko. Balio komunitario horietan oinarritzen

da Euskal Nazioaren etorkizuna. Naziogintzan eta garapenean inplikaturako herritar arduratsuek osatzen dute Euskal Nazioaren etorkizuna, eta horrek erronka batzuk planteatzen ditu:

- a) Herritargoa hezte esparru komunitarioarekin erantzukizunez jardun dezan.
- b) Balioetan bizitzeko hezte
- c) Komunitatearen eraikuntza sozialean, kulturean, zibikoan, politikoan, ekonomikoan... herritarren inplikazioa sustatzeko espazioak eta prozesuak bultzatzea.
- d) Euskal Hirugarren Sektoretik proiektuak eta prozesuak eraikitzen parte hartzen duten eragileei laguntzea.
- e) Nazio gisa ordezkatzeko dugun komunitate sozial, kultural, zibiko, politiko, instituzional eta historikoaren ezagutza indartzea, bai eta komunitate horretako kide izatearen sentimendua eta harekiko lotura ere.
- f) Ez gara hutsetik abiatzen; izan ere, hainbat ekimen egin dituzte Euskadiko erakundeek hezkuntza ez-formal gisa, hainbat proiektu eta ekintzaren bidez, hezkuntza-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-politiken esparruan. Baina zeregin hori gehiago jarraitu eta bultzatu behar dugu, Euskal Herriko eragile guztiekin lankidetzara publiko-pribatuaren eta sozialaren bidez eta gobernantza berritzaile baten esparruan.

5.3.10 Talentua. Fidelizatzea, erakartzea eta berreskuratzea

Talentutzat hartzen ditugu, ez bakarrik ikertzaileak edo kualifikazio handiko langileak, baita eraldaketa sakonek eskatzen dituzten egungo eta etorkizuneko lanbideak betetzeko **ondo prestatuta eta kualifikatuta** dauden profilik onenak ere, talentu ekintzailea azpimarratuz.

Munduko hainbat eskualde talentua erakartzeko elkarren arteko borrokan ari dira gaur egun, eta Euskadi, unibertsitateko eta LHko sistemen bidez, talentuaren sortzaile handia da. Beraz, espazio erakargarri bat bilatu behar dugu, bizi-kalitatearekin, soldata egokiekin, azpiegitura eta etxebizitza eskuragarriekin, gure gazteek Euskadin beren bizitza pertsonala eta profesionala garatzeko proiektu erakargarri bat aurki dezaten.

Gauzak horrela, txosten honetako gai bakoitzean lehenago azaldu diren ekimenak, egungo biztanleentzat ez ezik, funtsezkoak ere badira biharko Euskadi bermatzeko.

Talentuari eusteko politika irmoa izan behar dugu, administrazioaren, ikastetxeen, teknologien, LHren, unibertsitateen eta enpresaren inplikazioarekin.

Era berean, talentua bertan geratzea lortzeko ekintza guztiek balioko dute **kanpoko beste profil batzuk erakartzeko**. Tokiko talentuak eskatzen duen bizi-kalitate bera, ordainsari onak, etxebizitza eskuragarri izatea, aisialdia eta kalitatezko zerbitzu publikoak nahi baitituzte. Kasu horietan, biztanleria migratzailea ere badenez, garrantzi berezia eman behar diegu integrazioari eta bizikidetzari, eta pazientzia beste trinkotasuna beharko dute gure hizkuntza ikasteari dagokionez.

Talentua bertan gera dadin eta gurera erakartzeko ekintzen artean, kolektibo horrentzako zerga pertsonaletan pizgarri fiskalak ezartzen eta aplikatzen jarraitu behar dugu.

Gainera, honako ekimen hauen **egokitasuna** aztertu behar dugu:

- Bekak ematea tokiko talentuari, atzerrian lan-esperientziak aurreikusten dituzten graduak edo graduondoak ikasteko, bertoko enpresa batera itzultzeko eta lan egiteko konpromisoarekin.
- Atzerriko herrialdeekin eta ikastetxeekin lankidetzan aritzea profilak prestatzeko, gerora Euskadin lan-eskaintza bat badute edo jatorrian euskal enpresetan lan egin badezakete.
- Mezenasgoaren figura erabiltzea kualifikazio handiko langileen edo ikertzaileen familien hezkuntza-arazoak konpontzeko, arlo publikotik konpondu ezin badira.

5.3.11 Funtsezko beste zerbitzuak

1.- GIZARTE SEGURANTZAREN SISTEMA

EAJ-PNVk bere gizarte-segurantzako sistema propioa eduki nahi du, bai pentsio publikoei dagokienez, bai pentsio-sistema integral baten gertakizunak babesteko borondatezko sistema osagarriak arautzeko dagokionez.

EAEren eremu barruan, Gernikako Estatutuko eskumenak desblokeatzen jarraituko dugu, eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa gure gain hartuko dugu, elkartasun-printzipioa errespetatuz, kudeaketa ordenatu baten bidez zehazten diren prozeduren, epeen eta konpromisoen arabera.

2.- HERRITARREN SEGURTASUNA:

Herritarren segurtasuna funtsezkoa da edozein gizarteren ongizaterako, bere egonkortasun eta garapenerako. Segurtasuna eta segurtasun-pertzepzioa funtsezkoak dira bizikidetzan ona bermatzeko, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta, gure herria erakargarria izatea nahi badugu, ekonomiaren bilakaeran helburu sendoak lortzeko edo bisitariak gure lurraldera erakartzeko.

Herritarrei bizitza seguruagoa bermatzea eta erraztea da zerbitzu publikoaren kudeaketaren helburu nagusia segurtasunaren arloan, bi zentzutan: alde batetik, segurtasuna bermatzea, pertsonak eta ondasunak defendatuz; eta, bestetik, babesa eskaintzea: larrialdiei erantzutea, trafikoaren baldintzak zaintzea eta kontrolatzea, eta hondamendi meteorologikoen aurrean prebentzio-sistemak ezartzea. Ildo horretan, ezinbestekoa da baliabide teknologikoetan inbertitzea, giza baliabideen etengabeko prestakuntzan eta mugaren bi aldeetako erakundeen arteko lankidetzan eta koordinazioa indartuz eta sustatuz.

Hala ere, ukaezina da azken urteotan areagotu egin dela herritarren kezka, delinkuentziari dagokionez, eta EAJ-PNVk gidatu behar du erronka horri eman beharreko erantzuna.

Ertzaintza EAEn eta Foruzaingoa Nafarroan, udaltzaingoekin koordinatuta, Euskal Poliziaren eredu dira gure Alderdiarentzat, bai eta nazioarteko segurtasun-agentzia, erakundeekin lankidetzan, Europar Batasunaren barruan.

Horrela, bikaintasunez heldu behar diegu delinkuentziaren arloko erronka zaharrei zein berriei: ziberkriminalitatea, krimen antolatua, desinformazioa, indarkeriaren erradikalizazioa, gorroto-delituak, indarkeria matxista, sexu-askatasunaren aurkako delituak, ziberjazarpena, ordena publikoko istiluak, arma zurien erabileraren ugaritzea, ohorearen aurkako delituak (irainak edo kalumniak), fake news gisa ezagutzen direnen hedapenetik eratorriak, eta, oro har, herritarren bizimodua kaltetuko duten edozein delitu. Gainera, arreta berezia jarri behar zaie hirigune handietako delitu-guneei, eta ikuspegi integral batekin erantzun, erreakzionatzeko ez ezik, fenomeno horiek agertzea edo areagotzea prebenitzeko ere.

Beraz, etengabe berrikusi beharreko eredu bat defendatzen dugu, egungo errealitate aldakorrera egokitu behar dena; giza eskubideak errespetatuko dituen; zerbitzu publikoa izanik, herritarrei laguntzeko emango dena; Euskadirekin konprometituta egongo dena eta herritarrekin lotura sortuko duena; kide izatearen sentimendua aintzat hartuz; gizartearekiko harreman hurbilak erdigunean jarritz; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko printzipio gisa defendatuz; aniztasuna defendatuz; eta baliabide teknikorik modernoena eta metodo zientifikoa baliatuz, ez bakarrik delitugileak atxilotzeko, baita delitua prebenitzeko ere. Askoz ere eraginkorragoa delako prebentzioa hobetzen lan egitea, gauzatutako gertakarien aurrean erreakzionatzea baino.

Era berean, bitartekotza-lana polizien eguneroko lanean txertatu behar dugu. Komunikazio-teknika egokiak ezagutzea (euskarak garrantzi berezia du) funtsezkoa da gatazkei eta egunerokotasunari modu eraginkorrangoan, sentsibilitatez eta hurbiltasunez heltzeko. Indarraren erabilerak azken baliabidea izan behar du beti.

Euskal gizartea eta gure ingurunea etengabe aldatzen ari diren bezala, Euskadiko polizia-kidego guztiek etengabe eboluzionatu behar dute, gizarte-aldaketekin bat eginez, informazioa partekatuz, koordinatuz eta gure poliziaren jatorrizko balioak ahaztu gabe.

Azkenik, guztiz ezinbestekoa eta geroratu ezina, Justizian eta Legean, arreta jartzea. Lege-erreformak sustatu behar ditugu eskumen-eremu egokietan: delituak behin eta berriz egiteagatik aurreikusten diren zigorrak gogortzea, armak edukitzeagatiko zehapenak areagotzea eta, sistema judizial propiorik ez dugun bitartean, Estatuko Justiziaren lana arintzea.

Beharrezkoa da argitu gabeko kausa judizial ugari dituen delitugilearen figurarekin amaitzea, nekea eta haserrea sortzen baititu herritarrengan, eta, gainera, poliziaren lanean eraginkortasunik ezaren irudi faltsua proiektatzen du. Epaiketa arin eta eraginkorrak behar ditugu gaizkile asko ate batetik sartu eta beste atetik irten ez daitezen.

3.- KULTURA ETA KULTURA-ONDAREA

Arlo hori deskribatu dugu, gure herrialdearen ekarpen ekonomikoan duen garrantziaren ikuspegitik.

Baina kultura herritarren zerbitzurako eskubide gisa ere ulertu behar da.

Herri baten kultura, nazio batena, sinesmenen, balioen, adierazpenen, portaeren eta hizkuntzaren multzoa da, eta, horiek denak partekatzen direnean, nazio horri ematen diote nortasuna, gizarte osoari. Zenbat eta elementu gehiago partekatu eta zenbat eta identifikatuago sentitu haiekin, orduan

eta handiagoa izango da herri baten kohesio-maila. Herritarren egiteko, jarduteko eta hitz egiteko moduez arduratzen da, eta esparru guztiak hartzen ditu. Eta herri txiki guztiok gure nortasunari eusteko dugun borroka honetan, inguratzen gaituzten kultura erraldaien aurrean, kulturak funtsezko eta zeharkako zeregina betetzen du EAJ-PNVren politikan. Beste nazio batzuetan bezala, gure kultura da gure nazioa definitzeko beharrezko oinarria. Administrazio ezberdinetan zatituta egon arren, gure alderdiari dagokio herritar guztiok konpartitu ditzakegun ezaugarri horiek bilatzen dituzten ekimen kulturalak, foroak eta plataformak bultzatzea, dela abesten dugun abesti bat, dela tradizio bat, dela dantza bakar bat, dela ospakizun bat, dela lanaren "kultura" bat, dela elkartegintzaren kultura bat, eta abar, ezer ondaretzen saiatu gabe, baina beste inork ere beretzat hartu gabe.

Gure kulturak bereizten gaitu Europako beste herri eta nazio batzuen artean. Horiek zaintzeko eta sustatzeko lana egin behar dugu, arlo publikotik eta herrialdean dauden milaka elkarteekin elkarlanean.

Kultura hori da Euskadin bizi garen hiru milioi biztanle baino gehiagoren eta diasporan bizi diren beste bederatzi milioi ingururen (hirugarren belaunaldira arte) arteko lotura, eta lotura horri eutsi behar diogu, bai eta landu eta indartu ere.

Eztabaidaezina da Herri bat osatzen dugun pertsonok gure nortasunaren eraikuntzan daukagun zeregina.

Alde horretatik, kulturak funtsezko zeregina du, eta EAJ-PNVk hori bultzatzen jarraitu behar du. Dituen balioak eta eskaintzen dituen aukerak sustatu behar ditugu, baina ez ekimen puntual gisa, baizik eta garapen pertsonal, identitario, sozial eta ekonomikorako tresna gisa. Horretarako, guztion artean, kultura politika globaletan eta gizartean zentraltasun-posizioan kokatu behar dugu.

Sektorearen zentraltasunaren ikuspegi horretatik, Euskadiko kultura-politikaren helburuak honako hauetara bideratu behar dira: euskal kultura-berezitasuna eta gure hizkuntzaren, euskararen, erabilera babestea eta zabaltzea gizartearen esparru guztietan; kultura-aniztasuna, kultura eta komunitate desberdinen inklusioa eta irudikapena sustatzea; arte-sorkuntza eta haren nazioarteko proiektzioa babestea; herritarrek kultura-jardueretan duten sarbidea eta parte-hartzea areagotzea; euskal historia- eta kultura-ondarea babestea, eta teknologia berriak kultura-ekoizpenean eta -hedapenean txertatzea.

Horretarako, ondorengoak egin beharko dira:

- Gizarte-berrikuntzaren eta sormen-talentuaren motorra izango den euskal kultura-sektorea garatzeko baldintzak erraztea.
- Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzea gizartearen esparru guztietan eta kultura-eremu guztietan.
- Kalitatezko kultura- eta arte-eskaintza sustatzea eta zabaltzea, kulturarako sarbide unibertsala bermatzeko, bai eta hainbat kultura eta komunitateren inklusioa eta irudikapena bermatzeko ere.

- Kultura- eta arte-proiektuei laguntzeko funts espezifikoak sortzea, eta mezenasgo-politika eta erakundeen arteko lankidetzak eta gizarte-aliantzak garatzea, kulturaren zeharkako kudeaketa ahalbidetzeko, hezkuntza, ekonomia, hirigintza eta abar barnean hartuta.
- Kultura eta arteak eskola-curriculumean sartzen dituzten hezkuntza-programak ezartzea.
- Artistentzako eta sortzaileentzako baliabideak eta aukerak eskaintzea, eta erakunde kulturalen, artisten eta komunitateen arteko lankidetzak eta euskal kulturaren nazioarteko proiektzioa sustatzea.
- Historia- eta kultura-ondarea babestea eta kontserbatzea, museoak, liburutegiak eta artxiboak barne, eta kultura-ondarea eskuratzeko eta kontserbatzeko plataforma digitalak garatzea.
- Kultura-ekoizpenean eta -hedapenean teknologia berriak txertatzea.

Kultura-ondarea erakunde eta botere publikoek katalogatu eta babestu behar dute, etorkizuneko belaunaldiei utzi behar diegun ondare gisa. Zeregin horretan, ekimen publikoak oso lan garrantzitsua egiten du, baina babestutako ondasunen titularrei ere lagundu behar diegu, ondasun horiek babesteko gaitasun nahikorik ez dutenei, dela zuzeneko laguntzak eskatzen dituztenei, dela zerga-pizgarriak ematen dituztenei.

5.4 Sektore publikoa. Administrazioa

5.4.1 Funtzio publikoa

Euskal herri-administrazioetan lan egiten duten pertsonak **funtsezko zeregina dute ongizate-estatua egunez egun gauzatzeko**. Herri gisa, oso pertsona kualifikatuak ditugu, eta gehienak oso konprometituak herritarren zerbitzura lan egiteko helburuarekin.

Etorkizunera begira bermatu behar dugu Euskadik **funtzio publiko eraginkorra, efizientea eta konprometitua** izaten jarraituko duela, kalitate goreneko zerbitzu publikoak emateko.

Horretarako, planteatzen diren erronka handiei heldu behar zaie, besteak beste: egiturak eta profilak behar berrietara egokitzea, langileen gaikuntza teknologikoa, teknologia- eta antolaketa-profilak handitzea, pizgarri- eta aintzatespen-sistema ez-linealak ezartzea, plangintza estrategikoko eta proiektuen kudeaketako arloak sendotzea (hala nola horien ebaluazioa), eta funtzio publikoan ere talentua erakartzea.

Nabarmendu beharreko beste atal bat da euskal administrazioen arteko lankidetzak handiagoa sustatu behar dela, kontratazio-prozesuetan poltsa komun gehiago egon daitezen ahalbidetuz, administrazioen arteko mugikortasun-aukera handiagoak izan daitezen, eta soldata-eskumeneko egoerak saihestu behar direla, batez ere udal-mailan.

Gure sektore publikoan ere absentismo maila altuak ematen ari dira. Funtzio publikoa arautzeko legeetan, ebaluatzeko tresna objektiboak jasotzeaz gain, absentismoa murrizteko helburuak hitzartu

ahal izatea, gainsari kolektiboak eskainiz, bai eta diziiplina neurriak jarritz ere, absentismoa behin eta berriz ematen denean, arrazoia eman gabe.

Funtzio publikoa egokiro kudeatu eta arautzeko, Euskadik autonomia maila handiagoa behar du araugintzan eta betearazpenean; horregatik, eskumen areagotu hau jaso beharko da EAEn eta Nafarroan adostuko diren estatutu berrietan.

Azkenik, EAJ-PNVk defendatzen du bere ordezkari eta alderdikideen bitartez, esparru guztietan eta maila guztietan, baliabide publikoen erabilpen arduratsua egin behar dela, eta ez bakarrik funtzio publikoaren alorrean, baizik eta baita aurrekontu publikoekin zerikusia duten beste esparru guztietan ere.

5.4.2 Aurrekontu politika. Defizitak eta neurri antiziklikoak

EAEn eta Nafarroan, mailegu-kalifikazioak, kalitaterik gorenekoak dira. Gainera, BPGarekiko zorpetze tasak Estatuko baxuenak dira.

Hala ere, defizit-helburuen eta gastu-arauaren efektu konbinatuak eragin gaiztoa du; oparoaldi ekonomikoan, superabita sortzen da kontuetan, diru-sarrera publikoak gastua baino handiagoak direlako, eta gastu-arauak gastu hori mugatzen duelako, eta dezelerazio edo krisi egoeretan, sarrera publiko urriagoak ezin dira konpentsatu defizita eta zorra igoz edo aurretik dauden erretserbekin

Ondorioz, **formulak aztertu behar ditugu, administrazioek, kontuen iraunkortasunari kalterik egin gabe, gure ongizate-ereduaren finantzaketa berma dezaten, eta, aldi berean, ekonomian rol antiziklikoa bete dezaten.**

Ondorengo proposamen hauek aztertu behar dira:

- **Zerga-egonkortasuneko funtsak eratzea**, superabit-egoeretan zorra murrizteko betebeharrak egon ez dadin, baldin eta funts hori diru-sarrera publikoak eta inbertsio estrategiko eta antiziklikoak murrizteko edo funtsezko zerbitzu publikoak estaltzeko zuzkitzen bada.
- Era berean, **inbertsio estrategiko horiek**, epe ertainera diru-sarrera publiko gehigarriak sor ditzaketenak, **defizitaren helburuaren ondorioetarako zenbatuak izan ez daitezela, gastu arrunta balira bezala.**

5.4.3 Fiskalitate-politika. Tributuak

Fiskalitatea da politika ekonomikoaren funtsezko tresnetako bat. Hego Euskadik politika ekonomiko hori gauzatzeko erabiltzen dituen araubideak EAEko Ituna eta Nafarroako Hitzarmena dira, gure eskubide historikoen garapena.

Tresna horien kudeaketa zentzuduna eta arduratsua egin behar da, Europako esparruaren eta testuinguruaren barruan, bai Euskadiko pertsona fisiko eta juridikoentzat, bai inbertsio berriak erakartzeko.

Itunaren eta Hitzarmenaren arabera, EAEk eta Nafarroako Foru Komunitateak izaera zuzeneko zergak arautzeko, kudeatzeko eta betearazteko ahalmenak dituzte, eta gure foru-ogasunek ogasun integral gisa funtzionatzen dute, edozein estaturen antzera.

Zeharkako zergetan, kudeatzeko eta gauzatzeko ahalmenak ditugu, nahiz eta Europa mailan arau-harmonizazio handia duten zerga-figurak izan.

Araugintza-eskumena zeharkako zergapetze guztietan transferitzeko eskakizunarekin jarraitzeaz gain, EAJ-PNVk eskumena erreklamatu behar du zerga berri bat eratzen denean

Europako agintariak eskatuta edo Espainiako Estatuaren erabakiz onartuko den edozein zerga edo zerga berri EAEko eta Nafarroako erakundeekin hitzartu eta adostu behar da, baldintzak eta lotura-puntuak adostuz.

Ondo deritzogu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Ogasunek azken urteotan arlo honetan eginiko ibilbideari, bai eta Nafarroak garatu duenari ere, zerga-egitura zentzuzkoari eutsi baitiote, fiskalitate progresibo baten barruan. Horri esker, diru-bilketa zifra oso onetan gaude gaur egun.

Hala ere, egungo zerga-figuren barruan, **txosten honetan pizgarri-ekimen ugari planteatu dira, batez ere zuzeneko zergetan, proposatu eta deskribatu diren estrategiak, programak eta ekintzak garatu ahal izateko.**

Fiskalitate orekatua eta progresiboa izan nahi izatera garamatzan helburua da diru-bilketaren bidez **baliabide nahikoak jasotzea** gure herrian bizi eta lan egiten duten pertsonen ongizate estatu zuzen, orekatu eta inklusiboa eskaintzeko **beharko diren zerbitzu publikoetan** inbertitzeko.

Era berean, fiskalitateak jarduera ekonomikoa, enplegua eta inbertsioa sustatzea eta piztea izan behar du helburu, gure enpresen hazkunde organiko eta ez-organikoari laguntzeko. Bestela, ez baita egongo errenta-soberakinik baliabide publiko berriak atera ahal izateko.

Gure enpresen tamaina eta ekonomia-sarearen osaera kontuan hartuta, ahalegin berezia egin behar da enpresa txiki eta ertainak eta autonomoak indartzeko, eta, horrekin batera, berariazko prestakuntza-programak egin behar dira zergen, izapideen eta bitarteko digitalen arloan.

Beste edozein politika publiko bezala, zerga-sistema ere ebaluatu egin behar da aldian-aldian, eta behar diren aldaketak egin behar dira hain aldakorra den errealitatera egokitzeko.

Errealitate horrek berak eskatzen du EAEko foru-ogasunek iruzurraren aurka borrokatzeko mekanismo eta programa eguneratuak artikulatzea, eta iruzur-mota gero eta anitzagoei aurrea hartzea.

Bizitzen ari garen trantsizioen ondorioz gertatzen ari diren aldaketa azkarrek etengabeko egokitzapenak egitea eskatzen dute; arlo honetan agertzen zaizkigu gure Ekonomia Itunaren eta Ekonomia Hitzarmenaren ahalmen berriak:

- Multinazionalei % 15eko gutxieneko tributazioa aplikatzeak (bigarren zutabea), zeina 750 milioi eurotik gorako fakturazioa duten enpresei aplikatzen baitzaie, Europako zerga-lehiakortasuna homogeneizatzen du. Hala ere, funtsezkoa da fakturazio-maila horretara iristen ez diren enpresei tratamendu bereizia bermatzea, bereziki ETEei; **pizgarri fiskal handiagoak eskain daitezke trantsizio energetiko-digitalarekin dituzten konpromisoak ukigarriak badira**. Pizgarri horrek etorkizunean diru-sarrera publiko handiagoak bermatzea ekarriko du.
- "Euskadiko finantza-sektorea" atalean azaldu bezala, **enpresa-proiektuak finantzatzeko tresnen fiskalitatea xehetasunez aztertu behar dugu**, nazioartean lehiakorra izango den eskema bat geureganatuz, jarduera estrategiko, erakargarri eta errotzeko jarduera berriak garatzeko beharrezko malgutasuna ahalbidetuko duena, segurtasun juridiko osoa bermatuz.
- **Etxebizitza eta haren birgaitzea** gure zerga-araudiaren inplikazio garrantzitsua beharko duen beste atal bat da, **baita eraldaketa demografikoaren atalean proposatutako neurriak ere, kalitatezko enpleguak dituen zainketa-eredu berria, pentsio osagarrien orokortzea, jaiotza-tasa edo talentua fidelizatzearekin eta erakartzearekin lotutako alderdiak sustatzeko asmoz**.

Azkenik, beti kontuan izan behar dugu zerga-administrazioek **ahalik eta segurtasun juridiko handiena eskaini** behar dutela **pertsonak, enpresek eta entitateek** antzeko baldintzak eta arauak izan ditzaten denboran, fiskalitatea bezalako gai garrantzitsu horretan bat-bateko aldaketak saihestuz.

5.4.4 Administrazioa sinplifikatzea (burokrazia). Administrazio eraginkorra, pertsonak erdigunean jarriko dituenak, digitala eta elkareragingarria

Gaur egun bizi dugun errealitatearen ezaugarrietako bat da aldaketak berehala eta azkar gertatzen direla eta gizartea eboluzionatzen ari dela. Errealitate horrek talka egiten du prozesuen gehiegizko burokratizazioarekin eta moteltasunarekin. Administrazio bermatzaile batetik gero, eta, batzuetan, prozedura gehiegi eta beharrik gabe konplexu eta luzeak behar dira baimenak emateko edo, besterik gabe, herritarrei informazioa eskatzeko edo emateko. Gero eta administrazio hurbilago, sinpleago, arinago eta efizienteago baterantz jo behar dugu.

Digitalizazioa gure administrazioetan erreferentzia gisa ere eman behar delarik, lagungarria izan beharko da jarduerak egiteko, proiektuak bultzatzeko edo Euskadiko pertsona fisiko zein juridikoei baimenak emateko orduan.

Helburu horretarako, ondoren adierazten ditugu egin beharreko jarduerak edo ekimenak:

- **Euskal Datuaren Gune bat eratzea**, interkonexioa, elkarreragingarritasuna eta prozesuen eta datuen plataforma bateragarrien erabilera ahalbidetzeko, gure administrazioei produktibitate eta efizientzia handiagoa emanez. Administrazio-eremu bati ematen zaion edozein datu, eskaera edo fitxategi berriro ez eskatzea administratuari. Ekintza horiek ere lagundu behar dute epeak murrizten administrazioen izapide eta erantzunetan.
- Baliabide telematikoak eta digitalak eskaintzen dituen administrazioak berak bermeak jarri behar ditu **administratuen artean eten digitala saihesteko**, eta arreta-espazio fisikoak ere eskaintzen direla bermatu behar du, aldez aurreko nahitaezko hitzordua behar bezala justifikatutako egoeretan bakarrik planteatuta.
- Administrazioek, beren osotasunean, **beren prozedurak osorik digitalizatu behar dituzte**, datu-baseetarako sarbidea izanez eta administrazioen eta erregistroen arteko elkarreragingarritasunean ahalik eta eraginkortasun handiena bermatuz. Funtsezkoa da **Adimen Artifiziala zeregin horretan erabiltzea**.
- Hainbat administrazioetako lantalde teknikoak eratzea (eta lehendik dauden taldeak aktibatzea), **datuak eta dokumentuak elkarren artean konektatzeko**, bai administrazio- eta zerga-arloko informazioa, bai gizarte-segurantzari buruzkoa, bai izaera soziosanitariokoa, betiere datuak babesteko legezko bermeekin eta herritarren benetako zerbitzurako.
- **Izapideak ahalik eta gehien sinplifikatzea eta ulertzeko moduko "irakurketa errazarekin" egitea**, hizkera errazagoarekin, esaldi laburragoekin, hitz espezializatu gutxiagorekin eta estandarizatuagoekin, une oro herritarrekiko hurbiltasuna bilatuz.
- Zeregin horretarako, funtsezkoa da administrazioetako profesionalak erabat inplikatzeko: badakite zer esan behar duten herritarren ulermena bermatzeko. Etengabeko prestakuntza-prozesuak, helburuak entzuteko eta helarazteko prozesuak eta horiek betetzeko prozesuak baliagarriak izan daitezke profesionalak inplikatzeko, herritar guztiei erantzun eta konponbide egokia emateko eragile aktibo izan daitezen.
 - Eta, azkenik, **prozedura edo izapideak ezartzea**, pertsona fisiko edo juridikoek edo beste administrazio batzuek eskatuta, modu desberdinean ebaluatu behar direnak, **dela sentikortzat edo, hala badagokio, estrategikotzat jotzen direlako**.
 - **Sentikortzat** jo daitezke pertsonen osasunerako, egoera onerako eta ongizaterako eskubidearekin zerikusia dutenak. Horrelako administrazio-prozeduretan, mendekotasun-graduaren ebaluazioekin, desgaitasunaren balorazioekin, kuradoretzarekin eta abarrekin zerikusia duten jarduerak sartuko lirateke. Oro har, pertsona kalteberen egoerari eta zaintzari eragiten dien administrazio-erantzuna behar dutenak.
 - Era berean, **prozedura estrategikotzat** hartuko dira kategorizazio hori jasotzen duten proiektuak edo ekintzak garatzen dituztenak, aurrez adierazitako baldintza batzuk betetzen badituzte. Proiektu horien tramitazioa berrikusi egin behar da, erabakiarekin lotutako edo konprometitutako administrazioen erantzun azkarra ahalbidetzeko.

Proiektu horiek garatzeak eta izapidetzeak **ez ditu inola ere pertsonen eskubideak bermatzeko izapideak murriztuko, ezta ingurumen- edo klima-arlokoak ere**; hala ere, aztertu eta garatzeko lehentasuna izango du, eta azkar ebatzi beharko dira.

Zerikusia duten administrazio guztiek berariazko kudeaketa bat izan beharko dute, aldez aurretik ezarritakoa, espediente horiek aztertzeko.

Prozedura jakin bat sentikor edo estrategikotzat jotzeko erabakia administrazioen artean hartuko da EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko esparruak errespetatuz.

Halaber, Euskadiko administrazioek izapideak ezabatu edo azkartzeko prozesuan inplikatzeko eskatu beharko diete Estatuko beste administrazio-eremu batzuei.

Nolanahi ere, sinplifikazio administratiboa, irakurketa erraza eta elkarreragingarritasuna ahalik eta handiena izateko, Euskadin eta Espainiako zein Frantziako estatuetan arau-aldaketak egin behar badira, EAJ-PNVk beharrezko aldaketa-proposamenak egin beharko ditu.

Era berean, Euskadiko herritarrei kalitatezko zerbitzua emateko, koordinazio-, interkonexio- eta elkarreragingarritasun-mekanismoak antolatu beharko dira estatuetako beste administrazio batzuekin eta Europako esparruan, bereziki protokolo komun eta koordinatuak egokituz salbuespenezko egoeretarako, hala nola katastrofe naturaletarako, osasun-larrialdietarako, ezinbesteko egoeretarako eta abarretarako.

5.4.5 Erosketa Publiko berritzailea (EPB); bultzada emateko tresna

EPB abantaila bikoitza duen tresna publikoa da. Alde batetik, **aukerak sortzen ditu enpresa-sarean produktu/zerbitzu berriak garatzeko**, eta erakunde publikoa da merkaturatzeko arduraduna edo erreferentziako bezeroa. Beste alde batetik, administrazioei **aukera handia ematen die prozeduretan berrikuntzak txertatzeko** eta, horrela, lehiakorragoak eta eraginkorragoak izateko.

Orain arte, oro har, ez dira baliatu EPBk ematen dituen aukera guztiak, eta **ondorengoak lantzea proposatzen dugu**:

- Euskadiko administrazio-maila bakoitzak **EBPren plangintza estrategikoa egitea**, merkatuaren aldez aurreko azterketa eginez eta behar berritzaileak definituz.
- **Erakundeetan diagnostiko bat egitea** EBP proiektu zehatzak identifikatzeko, Euskadiko enpresekiko sentsibilitatea erakutsiz.
- **Arrakasta-kasuak** aztertzea eta administrazioei helaraztea.
- EPBn interesa duten enpresekin tailerrak antolatzea.
- **EBP proiektuen kontratazioak bultzatzea**, erakundeen aurrekontuaren ehuneko bat proiektu horietarako erabiltzeko konpromisoarekin.

6 ONDORIOAK

19 ondorio azpimarratzen ditugu:

1. Eraldaketa handiak ematen ari diren momentuan gaude, aukera eta zalantza handiekin. Europak bere burua berrasmatu behar du. Etorkizuna ez dago bermatuta, aurrera egin behar da autonomia estrategikoaren printzipioa lantzeko bidean. Hori guztia, nazioartean egungo larrialdi klimatikoaren inguruan adostasunik ematen ez den testuinguru batean.
2. Euskadik ahalmena du, bere printzipioei eta balioei leial eutsiz, ongizate-eredu bat finkatzen jarraitzeko, helburuekin eta beharrek bat datorrena, gizarte aurreratuenen pare izatea lortuz.
3. Horretarako, ezinbestekoa da Euskadiren lehiakortasuna epe labur, ertain eta luzerako bermatzea, eta, horretarako, beharrezkoa da eragile publiko eta pribatu nagusien artean adostutako estrategia bat izatea eta epe luzerako akordio politiko estrategiko handiak lortzea.
4. Estrategia horretan, trantsizio energetikoak eta digitalak lehentasunezko lekua izan behar dute, bai eta lehen sektorea zaintzeak eta industria indartzeak ere, bereziki funtsezko sektoreetan, hala nola nekazaritzako elikagaietan, mugikortasunean edo ekipamendu-ondasunen ekoizpenean. Era berean, estrategikoa da industria-sektore estrategiko berriak bultzatzea. Euskadiko erakundeek eragile aktiboak eta benetako katalizatzaileak izan behar dute estrategia honetan.
5. Energiaren arloan, klima-inpaktua arintzea bilatzen da, deskarbonizazio-helburuak garaiz eta modu adimentsuan betez. Hori guztia gure industria-lehiakortasunari kalterik egin gabe, gure enpresa-sarea indartuz eta ekonomia zirkularraren eredu baterantz aurrera eginez.
6. Esparru digitalean, beharrezkoa da asmo handiko programa bat gidatzea, teknologia berriak gure enpresa txiki eta ertainetan eta erakundeetan sartuko direla ziurtatzeko, eta sektore berriak bultzatzea, hala nola datu-industria, adimen artifizia eta zibersegurtasuna.
7. Gizartearekin konpromisoa duten euskal enpresei lagundu behar diegu, Euskadin hazteko eta sustraitzea indartzeko aukera izan dezaten. Enpresak finantzatzeko moduek tokiko inplikazioa duten mekanismo berriak eta horiek garatzeko pizgarri fiskalak behar dituzte. Euskadin zenbat eta erabakigune gehiago izan, orduan eta hobeto.
8. Berrikuntza, talentua, ekintzailtza (batez ere teknologikoa), etorkizuneko enpresa-eredua, ezbehar-tasaren aurkako borroka, absentismoa murriztea, fiskalitatea eta finantzaketa funtsezkoak dira gure etorkizunerako, batez ere gure ETEentzat. Enpresen tamaina eta belaunaldien arteko erreleboa bermatzea konpondu beharreko alderdi sentikorak dira.
9. Batez besteko bizi-itzaropena luzatu izanak, bizi-kalitate altuarekin bizitako urte kopurua handitzearekin eta jaiotza-tasaren beherakada handiarekin lotuta, lehentasun berriak ezartzen ditu gure agenda sozial eta ekonomikoan. Horregatik, funtsezkoak dira jaiotza-tasa sustatzeko neurriak, belaunaldien arteko lankidetzak eta edadismoaren aurkako borroka.
10. Euskadiko biztanleriaren zahartzeak politika publikoak egokitzea eskatzen du, arreta-eskaera gero eta handiagoei aurre egiteko, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanaren ildotik. Prebentzioa eta autozainketa funtsezkoak dira pertsona ardatz duen zainketa-eredu berrian. Eraldatzen ari den eredua, etxeko arretari eta zerbitzu komunitarioei lehentasuna eman.
11. Irmo defendatu behar dugu pentsio publikoen sistema, unibertsala eta belaunaldien arteko elkartasunezkoa baita. Pentsioen sistema osagarria orokortzeko lan egitea ere, batez ere bigarren zutabekoak.

12. Jaiotza-tasaren beherakada da heldu beharreko erronka handienetako bat, eta sentsibilizazio-, kontziliazio- eta sustapen-neurriak hartzera behartzen gaitu. Datozen urteetan, gure Herriaren helburu estrategikoetako bat da jaiotza-tasa handitzea, familia-kontzeptu guztiei zuzendutako politika aktiboak garatuz.
13. Migratzaileak etortzea erronka izateaz gain, funtsezko aukera da gure gizartearentzat, eta funtsezko faktorea da herrialdearen garapen sozioekonomikoan.
14. Osasuna eta Hezkuntza ongizate-ereduaren zutabe handiak dira. Erkidego mailan eta adostasun zabalekin lan egiten jarraitu behar dugu, bikaintasuna bilatuz.
15. Euskarak, Euskadiko berezko hizkuntza eta nortasun-ezaugarri nagusietako bat den aldetik, zeharkako elementua izan behar du, eta gure politiken lehen lerroan egoten jarraitu behar du. Kulturak funtsezko zeregina izan behar du Euskadiren garapen-faktore gisa.
16. Etxebizitzaren arloan, osorik jorratu behar da, eta irtenbide ugari daude, baina arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan ekin behar diogu.
17. Emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna eta aniztasunarekiko errespetua gainditu gabeko gaiak dira oraindik. Matxismoaren aurkako borrokari dagokionez, gizarte osoa inplikatu behar dugu, batez ere gizonak. Nahitaezkoa da indarkeria matxistarekin eta gorrotoarekin lotutako edozein indarkeria desagerraraztea.
18. Kontuak onbideratuta izatea ezinbesteko baldintza bat da autogobernuari eutsiko badiogu. Ituna eta Hitzarmena funtsezko tresnak dira, baina ez dira nahikoak erantzukizunez kudeatzen ez badira. Fiskalitatea, aberastasuna eta finantza-nahikotasuna birbanatzeko helburuak bete behar dituenak, adimenez eta irizpidez erabili behar da, konfiantza sortuz, segurtasun juridikoa emanez eta errealismo gutxi planteamenduak saihestuz.
19. Euskadiko funtzio publikoak eraginkorra eta konprometitu izaten jarraitu behar du kalitate goreneko zerbitzu publikoak emateko. Administrazio Publikoa eraldatzen jarraitu behar dugu, administrazio-izapideak sinplifikatu eta arintzeko eta pertsona guztiek zerbitzu publikoetarako sarbidea izan dezaten bermatzeko.
20. Alderdian ezarritako barne-bideei jarraiki, jarraipen-batzorde bat eratzea proposatzen da. Batzorde horrek, adierazleak definituz, tarteko ebaluazio bat eta ponentziaren garapenaren azken ebaluazio bat egingo ditu, eta alderdikideei emango zaie txosten honetan jasotzen denaren betetze-mailaren berri.